



HAL
open science

Hitz eratorriak Materren "Dotrina Christiana" delakoan (1617)

Bernard Beñat, B. Oyharçabal

► **To cite this version:**

Bernard Beñat, B. Oyharçabal. Hitz eratorriak Materren "Dotrina Christiana" delakoan (1617).
Lapurdum, 1996, 1, pp.37-71. artxibo-00000050v1

HAL Id: artxibo-00000050

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000050v1>

Submitted on 14 Dec 2005 (v1), last revised 14 Dec 2005 (v3)

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Bernard OYHARÇABAL

HITZ ERATORRIAK MATERREREN DOTRINA CHRISTIANA DELAKOAN (1617)

Aspaldi du ohartu zaizkiola euskalariak, bai eta idazleak ere, euskarak atzizkien bidez hitz eratorrien eratzeko eskaintzen duen bideari, eta joera herrikoiak eta hiperkultistak bat egin badute anitzetan maileguei euskarako borten zabal-zabala irekitzeko, asl:i goiz agertu da, beste aldetik, dela hiztegi egileen artean, dela idazleen artean, kontrako joera ere, euskararen erabide berezkoez baliatu nahiago zutenek bultzatua.

Egiaren aitortzeko, ez bide da egoki gauzak osoki aurkaritza horren arabera aurkeitea, bi jokabideak elkarri bizkarrez baleude bezala, ezen maiz eta maiz eratorbidea hitz mailegatuen hobeki etxekotzeko ere baliatua izan da. Ikusirik, adibidez, erdal adberbio batzuk nola itzuli zituen Leizarraga batek (*sumarioqui, exteriorqui, affectionatuqui, eternalqui, specialqui, interiorqui, necessarioki, distinctoqui, purqui, ...*), berehala ikus daiteke delako aurkaritza ez dela beti aipatu molde horretan agertzen. Alabaina mailegutuzako jokabideetan ezaguna da jokabide bikoitz hau : alde batetik, erran-nahi lexikala dakarren oinarriaren mailegatzea, eta bestetik kategoria emaille den morfema eratorlearen ordezkatzeta. Alderantzizko jokabidea ere ez zaigu arrotza, bestea bezain emankorra ez bada ere : *handios, adiskidantza, egitate, etab...*

Euskarako eratorbidez egin diren lanen artean bereziki aipatzekoak dira euskararen morfologia ikergai izan dutenak, hala nola, Uhlenbeck (1909), Azkue (1923), Villasante (1974), bai eta gramatika orokor batzuetan aurkitzen diren zenbait kapitulu, bereziki Lafitterenekoak (1944). Ez daiteke erran, hargatik, gai horri buruz testuetan beretan eginikako bilketa lan apitz egin dela, salbuespen bakanen artean MEN eta PEN atzizkiez de Rijk-ek (1991), Oihenarten olerkietako lexiko sorkuntzaz Azkaratek (1992), eta Mitxelenaren euskarazko lan sail batez Perez Gazteluk (1995) ondu lanak ditugarik.

Alde horretarik euskal hiztegi guziak ez dira osoki fidatzekoak. Ezen horrelako lanei behatuz ohart gaitezke bi hizkuntzatako hiztegietan aski alde handia izan daitekeela hitz eratorriei buruz abia hizkuntzaren arabera. Tradizio zaharreko hiztegietan beretan ere, itzulgaia euskarazkoa duten zerrendetan, gutiago dira hitz eratorriak, erdarazko sarrera dutenetan baino (Lakarra, 1994).⁽¹⁾ Eta badakigu geroztik joera hau ez dela baitezpada ahuldu.

Hitz batean erraiteko eskas ditugu euskal atzizkien hiztegiak, erran nahi baitu, atzizki bakoitzari dagozkion hitzen zerrendak, testuetan beretan oinarri harturik sistematikoki eratuak. Ikerlan hau, hain zuzen, halakoa da, haren helburua baita Lapurdiko idazketa eskolaren hartsarrea seinalatzen duen Materreren *Doctrina Christiana* (1617) azterkatuz, obra horretako hitz eratorrien bildumaren eskaintzea.

Lehen urrats batean, Materre eta haren liburua hitz laburretan aurkeztuko ditut. Ondotik atzizkien bidezko eratorretaz zenbait puntu, orokor direnak, gogora ekarriko ditut. Gero *Doctrina Christiana* liburuko hitz eratorrien bilduma, atzizkien arabera eratu, agertuko dut hitz eratorri bakoitzarentzat adibide bat emanaz, eta zenbait iruzkin eginez.

1. Estebe Materre eta haren dotrina.

1.1. Estebe Materre San Frantziskoren ordenako frantses frailea zen, 17. mendearen hastapenean, liburu bat, erdaraz idatzia naski, publikatu (1606) ondoan⁽²⁾ Euskal Herrira etorria. Ez dakigu zertara jina zen bazter hauetara⁽³⁾ eta zenbat denbora egon zen zuzen Lapurdin, baina iduri luke 1617an jadanik Lapurditik urrundua zela, ezen urte hartan egina den liburuaren onespenean Gilantena Itsasuko erretorak dio ordukotz La Réoleko gardiana zela Materre. Vinsonek (1891), bestalde, salatu zigun zenbait urte geroago, 1623an, Tolosan izanen zela.

Materreri zor zaio mende hartan egin zen euskarazko lehen liburua, lehenbizikoa euskal letretan prosaz egina eta itzulpena ez dena.⁽⁴⁾

Aitzineko hostoetan *euskaldunei* hitz bat idatzi zien Materrek, hartan esplikatzeko baitzuen zergatik, bera Euskal Herrikoa ez izanik, idatzi zuen liburu hura euskaraz⁽⁵⁾: alde batetik sineste katolikoaren irakaspeneren azkartzeko euskaldunen izpirituetan, baina, beste aldetik euskara hizkuntza idatzi gisa arautzeko ere:⁽⁶⁾

*Eta nola lanac cimendutic behar baitu hassi, eta gure salbamenduco obraren cimendua baita Doctrina Christiana, halatan nic ere, handic hasten naicela, hartu dut gogo liburutto hunen eguiteco, eta iendartera atheratceco, hunetan (bertce erakusleric eztenean) ikus dadin laburzqui cer-ere sinhetsi, obratu, eta escatu behar baita; **Eta guero ikus dadin halaber nola behar den Euscara esquiribatu eta iracurtu.***

Hitz hoiak ikusirik, iduri luke Materrek kontra-erreformaren izpiritua baliatu nahi izan zuela, ez bakarrik fedeari zetxezkion gaietan, baina halaber mintzairari zihoazkionetan ere, aditzera emaiten zuela abisu horretan haren arabera euskara idatzia oraino arautzeko eta finkatzeko zela garai hartan. Frantziskanoaren xedea, hitz batez, euskal mintzaira letrazko egitekoetara egokitzea izan zen, alkitik ahoz predikatzea ez baitzizaion aski, eta euskaldunak idatziaren bidez ere fedeko gauzetan nahi baitzituen argitu: *Eta etçait iduri asco dela*

Cadiratic predicatuz probetchu eguitea baiña are uste dut esquiribuz ere behar dela enseyatu eta travaillatu zioen ezin argikiago.

Segurki, aitzineko mendean, Leizarragaren inguruan bereziki, izan zen halako mugimendu bat Euskal Herrian euskararen letra hizkuntza egiteko. Ez dakigu, ordean, lan haiek biziki zabaldu zirenetz Nafarroako errege-erreginek mendean ez zeukaten Lapurdiko probintzian, eta neke da jakitea Erromaren gerizatik hastandu ez ziren apezek, handik berrogei urteren buruan, zenbateraraino balia zitzaizketen heresiaren usaina zerien halako irakurgaiak. Haren liburua ikusiz, ez du iduri Materrek begiak Leizarragaren itzulpenetan biziki higatu zituen. Baina horrek Leizarragaren itzulpenak ez zituela batere begistatu erakusten ote du? Ezin erran, baina iduriak ene ustez ez digu horrelakorik salatzen.

Goragoko aipua ikusiz, batek uste izan dezake orduko euskaldun alfabetatuetan ere arras gutik baizik ez zekiela euskaraz irakurtzen eta idazten. Ez da segur, haatik, gauzak arras horrela konprenitu behar direla. Ezen euskara orduan letra hizkuntza guti arautua bazen ere, hura zatekeen jendeen arteko mintzabide nagusia Lapurdin, idatzian ere baliatua. Argitara eman dira berrikitan Urtubiako andereak 1598an euskaraz idatzi gutun batzuk, Lapurdiko handikiek, behar zutelarik bederen, edo komeni zitzaienean, euskaraz izkiriartzen zutela erakusten digutenak (Floristan Imizkoz 1993). Modu berean, 1620an edo hor nonbait argitara eman zituen Voltoirek euskararen ikasteko bere solasaldiak, Donibane Lohizunen euskara merkataritzako mintzaira gisa ere erabilia zela erakusten dutenak. Segurenaz ere, ordu arte euskarazko liburu guti publikatua izan bazen ere, aspaldi zuen euskara idatzia baliatua zela Lapurdiko gizartean, eta pentsa daiteke euskara zela idazterakoan ere lapurtar anitzi egiazki balia zekiekeen mintzaira bakarra.

Iduripen horren indartzera heldu dira Materrek liburuaren bigarren argitalpenean (1623) eginikako aitzin solaseko hitz hauek :

Eta ceren añhitz baita Euscal-herrian iracurtcen daquenic, baiña ez Euscara baicen bertce hitzcunçaric aditcen, halatan eguin ditut halacoençat Euscaraz debocinozco othoitza eta oracino batçu, goicetan, arratsetan, eta bertce añhitz demboratan eta ocasinotan eguin eta erran ahal ditezqueyenac.

Halaber otoitz batzuk mariñelek beren bidaietan erraiteko eskaintzen baitzituen Materrek bere liburuko ondar partean, ez du dudatzen itsas untzietan euskaraz irakurtzeko gai ziren mariñelak izanen zirela, eta haiek haren otoitz liburua eskuetan izanen zutela :

Eta hauquen ondoan erran beça çuetaric batec [itsasoan dabil-tzan mariñelei mintzatuz] appurbat gora eta çaguitz orai hemen ibenico dudan othoitza : eta bitartean eduqui beçate bertcec ere hartan gogoa, ençun beçate, edo norc bere liburuetan ixilic iracur beçate, ceren estimatcen dut ez-tela icanen bat-ere iracurtcen daquien marinelic liburu haur içanen eztuenic. (328.o.)

Materrek liburu bat bakarrik idatzi zuen euskaraz, hemen aipatzen dugun *Dotrina Christiana* hain zuzen ere. Lehen argitalpena 1617an egin zen, baina Villasanteren (1979) eta Bozas Barrutiaren (1968) arabera ez da gelditzen argitalpen hartako alerik. Bigarren argitalpena 1623an egin zen, eta hau izan da hemen baliatu duguna⁽⁷⁾. Ez da dudarik aski arrakasta handia izan zuela *Dotrina honek*, mende baten buruan oraindik publikatua izan baitzen. Erran dezagun, bestalde, liburuko pasarte batzuk ondotik baliatu zituztela beste autore batzuek Lapurditik kanpo ere.⁽⁸⁾

Liburuaren ikuskatzaileak bi izan ziren : Axular, Sarako erretora, eta Gilantena Itsasuko erretora zena orduan.

Axular hor aurkitzea ez da bitxi, kontuan hartzen badugu Materrek Saran ikasia zuela euskara, eta beraz uste izatekoa dela hango erretora ongi ezagutu zuela. Materrek berak erran zuen non ikasi zuen euskara, gero Axularren lumapean aurkituko ditugun hitzak erabiliz⁽⁹⁾ :

Gaiñeracoan ba-daquit Euscal-herrian añhitz moldez minçatcen direla, et nor bere herrico Euscara çaicala hoberenic eta ederrenic : Eta handic gogora emaiten deraut ene esquiribatceco molde haur etçayela guztiei ongui idurituco : Baiña nahi dut iaquin deçaten halacoec nic hitzcuntça hunetan daquidana Saran ikassia dudala, eta hango Euscara ongui erabilcen ba-dut ez naicela gaitz erraiteco, eta ez arbuyatceco, ceren ez paitaquit nic hangoa baicen. Ordea ea Saraco Euscara denz Euscal-herrico hoberena eta garbiena, ez naiz ni hartan sartcen, bat-bederac emanen du bere iduriric. Eta Saraco Euscara hunetcaz content eztenac ezquiriba beça bertce Euscara hobeago batez eta hobequiago, ez naiz ni hargatik bekaiztuko, eta ez imbidios içanen.

Materrek euskara artez, argi, nekerik eta engainamendurik gabe-koa zerabilen, jende xoilentzat egina, baina garbi eta apaina, beti klar eta zituen helburu pedagogikoentzat arras egokia. Ezen *Dotrina Christiana*, erdi katixima erdi otoitz liburua da, ez gogoeta idazlana, ez eta, are gutiago, hitzaren erran-nahi hertsian edo noblean harturik, literaturazko obra ere.

2. Ohar orokor zenbait, euskal atzizkien ikerketan kontuan hartzeko diren puntuez.

Morfologiazko lanetan hitzen barneko egitura ikertzeko hiru erabide bereizten dira : eratorketa (deribazioa ere deitua), elkarketa (konposizioa ere deitua), eta jokadura (flexioa ere deitua). Gu hemen lehenbizikoaz baizik ez gara ariko, edo hobeki erraiteko hartan baliatzen den morfema sail berezi batez, erran nahi baitu atzizkiez. Atzizkiak bereziki ikertu ditugu, euskarari haiek baitute tokirik handiena eratorketan, eta haiek bakarrik izan baitaitezke hitz eratorrientzat kategoria emaile. Ez ditugu atzizki guztiak sartu haatik, zeren, multzo berezi bat osatzen dutelakoan, aditz eratorriak ez baititugu gisa hartan zerrendatu ; halaber, gibelkako eratorketak ez ditugu kontuan hartu.

2.1. Atzizki eratorleak eta elkarketetako osagaiak.

Nola egiten da atzizkien eta elkarketetan agertzen diren osagaien arteko bereizketa? Teorian bederen, gauzak aski argi dira: atzizkia morfema lotua da, erran nahi baitu hitz gisa bakarrik agertzeko gaitasunik ez duen forma bat, eta elkarketako osagaia, aldiz, morfema librea, beste ingurumen batean hitz gisa ager daitekeen osagaia. Horrela, guk hemen ikertzen ditugun atzizkien kasuan, GIA atzizkia dela erranen dugu, baina ez LEKU, nahiz *bazkagia* eta *bazkaleku* elkarraren irudiko hitzak diren erran-nahiaren eta, partez bederen, egituraren aldetik ere. Alabaina GIA morfema ez da hitz betea euskaraz; bai ordean, LEKU.

Haatik, euskal gramatiketan franko molde nahasian aurkeztua da zenbaitetan atal hau. Horrela, Lafitteren gramatikan edo Villasanteren estudioan *aldi*, *bide*, *gabe*, *gai*, *gune* eta (*k*)*ide* edo *zain* adibidez, atzizki eratorleen sailean agertzen dira, gorago aipatu irizpidearen arabera nekez horrela egin daitekeelarik, hitz horiek ez baitira morfema lotuak.

2.2. Eratorbideko atzizkia eta jokaturako atzizkia.

Erator atzizkiak flexio morfemetarik bereiztea ere beharrezkoa da, gogoan edukiz, bai aditz jokadura, bai izen sintagmen jokadura ere.

Aditz flexioa delarik ez ohi da buruhausterik sortzen, ez funtsezkorik bederen, nahiz hemen ere morfema batzuk doi bat engainagarri gerta daitezkeen batzuetan, hala nola aspektu burutua markatzen duen morfema, edo izen adizkietakoa. Gramatika gehienetan erator atzizkietan sartzten da *-tu* morfema (eta *-i* ere), baina ez dirudi hori bidezkoa dela, *-tu* atzizkia aspektu marka eta alde horretarik aspektu flexioari dagokion morfema denaz geroz⁽¹⁰⁾. Nolanahi ere ez ditugu aditz eratorriak kontuan hartu gure bilketan, ez izen adizkiak ere (erran nahi baitu T(Z)E atzizkia dutenak).

Flexioa ez da aditzetan bakarrik agertzen euskaraz, izen sintagmei dagokien jokadura ere hor baitugu, hala nola kasu markadura. Eta batzuetan honekin ere ager daitezke eratorbidearen eta flexioaren elkarretarik bereizteko zailtasunak.

Ezaguna da, adibidez, nola zenbait hizkuntzalarik, horien artean Mitxelena (1986), kasu adnominalizatzaileak atzizki eratorle gisa kontsideratu izan dituzten euskaraz, nahiz genitibo horiek kasu paradigmaman sartuak izan diren gramatika tradizioan, eta beraz jokaturako morfemen artean.

Erran gabe doana, auziaren zuritzeko eratorbidea zeri erraiten zaion ikusi beharra da. Gaur egun, lexikoa eta sintaxia atal desberdinetan dauzkaten gramatika ereduetan behintzat, ongi markatua da eratorbidearen eta jokaturaren arteko bereizketa: lehenbizikoa hiztegiaren edo lexikoaren atalari dagokio, eta bigarrena, berriz, modu batean edo bestean, sintasiaren atalari, erran nahi baitu sintagmen arteko erlazioak josten diren mailari.

Lexikoaren mailan egiten baita eratorketa, lexikoko unitateetan obratua da, esan nahi baitu hitzetan beretan. Hortik ondorio hau : eratorletasuna ez dagokie izen sintagmei eransten zaizkien morfemei, baik ere hitz hutsek –izan daitezen bakunak edo ez– hartzen dituztenei.

Irizpide gisa balia dezakegu puntu hau, sintagmei darraizkien atzizkiak eratorbideko eremutik kanpo uzteko, hala nola kasu markak (genitiboak barne), edo *tzat* prolatiboa. Duda gelditzen da, haatik, beste zenbait atzizkirentzat.⁽¹¹⁾

Batzuetan argi da hitza dela atzizkiaren eremua (TSU edo OS ize-nondo sortzaile diren atzizkientzat, adibidez, edo KI aditzondo eratorzailearentzat), baina DUN bezalakoak maila berekoak ote dira ? Segur atzizki horiek ez dute edozein sintagma selekzionatzen, eta bereziki ez determinatzailearik duenik, baina hitz hutsetara soilik eransten zaiea ?

Horrelako morfemen izaera ez da garbi euskaraz, ezen, iduriz, euskaldun guziek ez dituzte berdin onartzen ondoko adibideak (Leizarragaren idazlanetan ageri direnak) :

??/%%+ *begi bakoiztun / esku bakoitzdun /*

??/%%+ *esku eihardun*

Hegoaldeko hiztunek ere aise onartzen dituzte *[[atorra eta galtza] gorridun] haurra* bezalako itzuliak, bizkitartean beste batzuentzat doi bat bortxatuak direlarik. Erran gabe doa, gaitasun gramatikal horren arabera nekez DUN erator atzizki gisa kontsidera daitekeela, cf. Odriozola eta Zabala (1994).

Azken urteetan gramatikako hiztegia gehienik moldatua izan den hizkuntzetan preposizio edo posposizio deitura baliatu da [– IZENA ; – ADITZA] ezaugarriak dituen kategoria lexikal nagusiaren izendatzeko. Haatik, azken deitura honek unitate horien forma kontuan hartzen du egiazki, eta ez haien kategoriako izaera. Erran nahi baitu, izan daitezkeela, eta badirela, kategoria horretako morfemak atzizkien bidez adieraziak (bai kasu atzizkiak, bai bestelakoak). Euskaran *posposizio atzizkiak* erran diezaikegu halakoei, proiektzio sintagmatiko bateko buru gisa azter daitezkeenak eta, ondorioz, atzizki eratorleatarik bereizteko direnak.

Seinala dezadan azalpen horiek bururatu gabe, *-ago* eta *-egi* atzizki konparatiboak ere posposizio atzizkitzat jo ditudala eta ez eratorbideko hizkitzat. Alabaina atzizki horiek atzizki eratorriak ager ez daitezkeen ingurumenetan kausitzen dira (*handitzenago*), eta nekez ene iduriko lexiko mailako morfema gisa har daitezke lexikoan agertzen diren zenbait kasu berezitan ez bada (*on ---> hobe*).

3. Materreker erabili atzizki eratorleak.

Agertzen diren atzizkiak : *antza, ari (1), ari (2), dura, garri, ka, (k)eria, (k)eta, ki (1), ki (2), (k)izun, (kh)oi, kuntza, le, mendu, os, pen, ro, tasun, ti, tsu, to, tza, tzaile, tze, zale, zarre, zia.*

Ordena alfabetikoan aurkezturik, atzizki bakoitzaren bidez sortu hitzen zerrenda eskainiko dugu, aldi bakoitz adibide bat emanez, eta ondotik iruzkin labur batean, atzizkiaren bidez sortu hitz eratorrien eta haien oinarriaren kategoriak mugatuz. Hitzaren aurkezterakoan ortografia gaurkotu dugu (salbu, maileguei buruzko jokabideen segitzeko edo morfologia gardentasunarentzat ondoriorik izan zezakeenean), baina adibideetako zen bezala utzi. Idazlanaren ondarrean, eranskin batean, corpuseko hitz eratorriak ordena alfabetikoan bildurik aurkituko dira, itzulpena ondoan dutela.

Barianteak, eta hitzen barneko atzizkiak kontuan hartu gabe, 178 hitz eratorri desberdin, adizki bati ez dagozkionak, zenbatzen dira.

ANTZA

alegriantza : *Ceren çu çara ene esperança, ene bicitcea, ene erremedioa, ene arguia, ene borthitztasuna, ene aberatstasuna, ene consolamendua, ene alegriança, ene atseguina, ... (264. o.)*

ANTZA atzizkia beste bi hitzetan ere agertzen da : *esperança* eta *segurança*. Ordean, nola hitz horiek espainolean ere kausiten baitira, kontsidera daiteke hitz osoak izan direla mailegatuak.

Alegriança hitzaren kasua desberdina da, ezen forma hori, iduriz, ez da agertzen ondoko erromantzeetan.

ANTZA-ren kide erromanikoa kausitzen da Corominasek aipatzen digun espainol zaharreko *alegrança* forman, eta beste modu batean gaskoinez ere *alegrance* hitzean (ik. S. Palayren hiztegia). Euskaraz ere, maileguaren bidez bide horri segituz, *alegrantza* hitza agertzen da (Leizarragak eta Gazteluzarrek, adibidez, zerabilten).

Ordean, *alegriantza* eratorria denaz bezainbatean, nola *alegria* hitza ez baita agertzen lapurtar idazleetan (bai, aldiz, Etxepareren bertsuetan), pentsa dezakegu ANTZA atzizkia *alegria* oinarriari lotua izan zaiola lapurteran maileguaren hobeki etxekotzeko, gorago aipatu jokabidearen bidez. Lapurtar idazleek izenondoarentzat *alegera* forma zuten (Materrek erabiltzen ez badu, bai, ordean, Axularrek, Etxeberri Ziburukoak, S. Pouvreaux ..., Leizarragak bezala).⁽¹²⁾

ARI (1)

gidari : *Ezagutcen dut ecen çu çarela ene bicitçearen gobernaria, espi-tuaren guidaria, adimenduaren arguitçailea (...). (293. o)*

governari : *Hunequin batean gomendatcen derauzquiçut munduco estatu guztiac, (...), Eliçaco bertce Superiorac eta Gobernariac, Gure Erregue Jauna, (...). (220. o)*

urrikari : *Hec dira bihotz-berac, beharrean daudenac, urricari dituztenac, eta bere ahalaren arauaz onez ere faboratcen ituztenac. (150. o.)*

zerbitzari : *Abraham çure cerbitçari leyala Caldeanoen escuetaric libratric bere bide guztietan beguiratu baitcenduen. (334. o)*

ARI atzizki agentiboa, izenei eta aditzoinei lot dakieke. Batzuetan, ordean, zail da jakitea nola den kasua zeren aditzoina eta izena, bata nola bestea, izan baitaitezke oinarri. Nahiz hemen ere bi hitzetan bi oinarriak posible diren teorian (**ZERBITZU / ZERBITZA ; GOBERNU / GOBERNA**), **GIDARI** hitzean ez da horrela. Hiru hitzetan aditzoina dateke oinarria, ez hari doakion izena.

Urrikari hitza *urrikari ukan* lokuzioan agertzen da corpusean, eta izen kategoria du. Ez da beti argi zer adierazten duen zuzen : urrikia bera, edo urrikia sortzen edo erakartzen duena. Ühlenbeck-ek *digne de pitié* itzultzen du, eta *qu'on plaint* Orpustanek (1993) Oihenarten obraren hiztegian, baina Axularrek bestelako balioa emaiten dio *arrainaren urrikariz* dioenean (§ 330). Azken kasuan *nahikari* edo *ustekari* hitzetan bezala **IZENA + KARI** erabidea genuke. Ordean, *urrikari zaitut* bezalako formetan azterketa hau nekez onets daiteke. Beste interpretazioa hobetsiz, berriz, nolabaiteko balio 'aktiboa' luke atzizkiak, aditz psikologikoen edo afektiboen kasuan horrelako terminologiarik erabil badaiten. Horregatik, segurtamenik batere gabe, zerrenda honetan sartu dugu hitza, **URRIKI + ARI** azterketa proposatuz (*urriki* izena izanik, edo aurreko paradigmari jarraikiz, aditzoina).

ARI (2)

edari : *Egarri ba-naiz, çu çara edaria eta ithurria.* (277. o)

ARI (2) atzizkia, jan-edanari lotua dena (cf. *afari, askari, gosari, janari*, etab...), behin baizik ez da agertzen zerrendan. Oinarria aditzoina da, kasu honetan ondarreko *-n* galdurik (cf. alderantziz *jan(h)ari*). Atzizki hau bakarrenetarik da zerrenda honetan eihartutzat jo dezakeguna.

DUN

euskaldun : *Euscaldunei* (aitzin oharra).

DUN atzizkiaren bidez sortu hitz bakarra da gure corpusean *euskaldun*. Gorago erran bezala, zenbait hiztunentzat bederen, **DUN** posizio atzizki gisa ere har daiteke. Ez da argi nola ziren gauzak Sarako orduko euskaran. Axularrek konparazioe ez du sekula Leizarragak bezala egiten, *-dun* atzizkia [**IZENA + IZENONDOA**] taldeari lotuz.

DURA

herstura : *ceure botherearen faborea egor diaçaguçu herstura handi hunetan.* (357. o)

izialdura : *Noiz behar da ceiñatu ? - (...) cembait icialdurac hartcen gaituenean, (...)* (44. o)

nothadura : *eta halatan sortcen gara likistuac eta nothatuac : eta nothadura hura deitcen da becatu originala.* (162. o.)

oliadura : *Eliçaco Sagaramendu sainduac dira çazpi : (...)* 5. *Oliadura, edo Anuncioa.* (17. o)

DURA atzizkia aditzoinei eransten zaie komunzki, eta izenak erazten ditu. Erdal jatorrizkoa izanagatik (frogarik behar balitz, ohar zubereraz [ü] dela, ez [u], ondotik /r/ izanarren *aiphadüra*, *ekhardüra*, ...), osoki sartua da euskal morfema gisa. Materreren hitzetan, *herstura* eta *nothadura* hitzentzat ez da dududarik HERTS, NOTHA aditzoinak direla oinarrian.

Oliadura izenak OLIA aditzoina duke oinarria. Nahiz ez Leizarragak, ez Axularrek ez duten aditz hori erabiltzen, Beriaynen (*Dotrina*-n) (1626) agertzen da garai bertsuan (Sarasola 1984-1995, *oliatu* sarrera)).

Izieldura hitza ere agertzen da. Haatik, buruhaustek sortzen ditu hitz horrek oinarria finkatzeko orduan. Alabaina IZI(TU) aditzetik *izidura* forma eratorria, Leizarragak erabiltzen zuena, igurikatzen da, eta ez *izieldura*. Bizkitartean, hau da gaur egun Axularren garaian bezala gehienik erabiltzen den forma. Oinarria IZIALDI + DURA elkarketa ote da, Lhanderen hiztegian proposatzen den bezala? Erabide hau maizkoa ez bada ere, beharbada baluke paralelo bat *ukhaldura* forman 'zauria' edo 'ubeldura' adierazteko (Leizarraga): UKHALDI + DURA. Agud & Tovarrek (1989), Mitxelenari jarraikiz, IZI + ARDURA (azken hau mailegu garbia delarik), disimilazio batekin ikusten dute. Orduan hitza zerrendatik kentzekoa litzateke, ez bailitzateke DURA atzizkia. Ene iduriko, halere, kontua ez da biziki garbi.

Tristura hitza ere agertzen da (*ene espirituaren tristurac khen itçaçu ceure consolamenduaz* (283. o)), baina hitza osoki mailegatua izan balitz bezala hartzea komeni bide da.

Seinalatzeko da hitz osoki maileguetan *-tura* forma atxikitzen duela Materrek (*kreatura*), Axularrek bezala, eta beraz DURA atzizkiaren hatsarreko herskariaren ahoskabetzeko arrazoinik ez bada (*herstura*) argi dela maileguen eta euskal erabideari darraizkion hitzen arteko bereizketa.

GARRI

hilgarri : *Cer erran nahi du mortal hitz hunec ? – Lecu hunetan hanbat nola hil-garria.* (163. o)

miretsgarri : *Aithortcen dut, Iauna, ecen ceure pietate handiac, (...), eraguin deratçula miretsgarrizco obra haur.* (260. o)

nardagarri : *Baiña çuc nolatan (...) nahi duçu hain leku liçunean eta nardagarrian, (...), sarthu ?* (252. o)

GARRI atzizkia aditzoinei lotzen zaie. Corpusean izenondoak dira GARRI atzizkia dakarten hitz eratorriak (atzizki horrek izenak sor dit-zakeelarik bestalde), HIL, MIRETS, eta NARDA aditzoinak izanik oinarriak. Erran nahiaren aldetik prozesuaren eragileari dagokio atzizkia. Halatan, *hilgarri* hil dezakeenari dagokio adibidean, ez hil daitekeenari; erran nahi aktiboa du, beraz.

KA

besarka : *Ezconduac eztirenen arteco haraguizco obrac, eta are guehiago **bessarcac**, musuac, eta bertce desonhesqui huquitce guztiac ere bekatu direla* (114. o)

KA atzizkia behin baizik ez da agertzen corpusean. Mitxelena zuzen ari bada hitz horren azterketan : BESO + HAR-KA genduke erabidearen hastapenean KA atzizki adberbiala *har* aditzoinari lotua izanik (cf. *joka, erranka, ikuska, ...*), baina erran gabe doa, *besarka* hitzean forma adberbiala izen gisa lexikalizatu dela.⁽¹³⁾

(K)ERIA

falseria : *Eztugula halaber contüan, pisuan, neurrian, sal-erossietan, auenicoetan, eta bertce hartu-emanetan **falseriaric** edo enganamenduric eguin behar, (...)*. (115. o)

gaixtakeria : *Cure ontasuna eta emetasuna narritatu dut neure gaixtaqueria handiez.* (226. o.)

(K)ERIA atzizkia izenei edo izenondoei erantsirik izenak moldatzen ditu, kasu gehienetan gaitzespen marka bat emanez hitz eratorriari. *Faltseria* Etxepare eta Leizarragak enplegatzen zuten, bai eta 17. mendeko lapurtar idazleek ere, geroztik *faktsu/o-keria* forma nagusitu bada ere. Oinarria *faltso* izenondoa (cf. *falsoki*) da, hala nola *gaixtakeria* hitzean, *gaixto* baita.

(K)ETA

gogoeta : *behar dugu arrats guztiaz gueure conciencia examinatu, eta cer eguin, erran, eta pensatu dugun eguin **gogoeta**.* (307. o)

(K)ETA atzizkia *gogoeta* hitzean baizik ez da agertzen corpusean, *gogoeta* egin lokuzioan, izen kategoria duelarik.

Badirudi izena dela oinarria *gogoeta* hitzaren kasuan, nahiz *gogo* izenaren ondoan, *gogoatu* aditza ere baden bestalde.

KI (1)

abantaillatukiago : *Ceren nola bertce saindu guztiac baiño gayago baitcen, hala bertce guztieci baiño **abantaillatuquiago** Espiritu sainduaren dohaiñac eta garaciac ere ičan baitcituen.* (94. o.)

agertuki : *Noiz ikussico çaitut bada **aguertuqui**, eta estalquiric gabe, Ainguerülec cerüan ikusten çaituzten beçala ?* (256. o.)

ahalkegabeki : *Ni naiz bekatore guztietaco handiena, gaixtoena, eta esquer-gabena, **ahalque gabequi** bici ičan naiçena, ...* (224. o.)

ansigabeki : *Accusatcen dut neure esquergabetasuna, ceren hain laxoqui eta **ansicabequi** utci dudan aita ona eta amoriozcoa.* (226. o.)

atentoki : *Meça errailea a[l]darera ethor dadinean, erraçü debotqui eta **attentoqui** othoitz haur.* (194. o.)

- banoki : *Nola aditcen duçu bigarren manamendua, Arneguric, cineic, edo iuramenturic vanoqui eta premia gabe eguiten dugula ?* (109. o.)
- beregainki : *Esquerrac eta laudorioac emaiten derauzquitçut çure ganic orai artean errecibitu ditudan ontassun guztiez, eta beregainqui ceren ioan den gauean peril guztietaric beguiratu bainauçu.* (183. o.)
- bereziki : *Baiña bereciqui esquer derautçut ceren egungo egun hunetan (...) munduco periletaric beguiratu bai-nauçu.* (311. o.)
- bidezki : *Argui eçaçu bada othoy ene espiritua eta memoria ceruticaco arguiaz, halaco moldez non neure becatuen itsusitasuna, handitasuna eta pisutasuna eçaguturic, cofessa ditçadan librequi, clarqui, eta bidezqui.* (233. o.)
- borthizki : *Bigarrena, Pilatusen etchean harroin batequin loturic borthitzqui açotatu çutenean.* (189. o.)
- debotki : *Eta guero Cofesorac ordenatcen derauzquigun satisfacinoac edo penitenciazco obrac behar ditugu ossoqui eta debotqui complitu.* (135. o.)
- desoneski : *... eta are guehiago bessarcac, musuac, eta bertce desonesqui huquitce guztiaç ere bekatu direla.* (114. o.)
- dignei : *Baiña norc erran ahal leçaque cembat probetchu, eta ontasun e[th]horcen çai[c]an dignequi, eta behar beçala errecibitcen çaituen arimari ?* (261. o.)
- egiazki : *Sinhesten dut oguiaren eta arnoaren iduriaren azpian daudela eguiazqui eta errealqui Iesu-Christo gure Iaunaren gorputz sacratua.* (130. o.)
- errazki : *Eta examinatce hunen errazqui eguiten ikasteco, emanen derauçut hemen molde bat, eta nahi nuque huni iarraiqui bacenenquitça.* (309. o.)
- errealki : *Sinhesten dut oguiaren eta arnoaren iduriaren azpian daudela eguiazqui eta errealqui Iesu-Christo gure Iaunaren gorputz sacratua.* (130. o.)
- espiritualki : *Eztut guehiago becatu mortalaz espiritualqui hil nahi.* (243. o.)
- faltsoki : *Aditcen dut eztugula nehor falsoqui acusatu behar, ...* (116. o.)
- finki : *Deliberatcen dut finqui eta fermuqui (...) ez guehiago bihurtcera, eta ocasinoetaric ihes eguitera, ...* (236. o.)
- fermuki : *Deliberatcen dut finqui eta fermuqui (...) ez guehiago bihurtcera, eta ocasinoetaric ihes eguitera, ...* (236. o.)
- gaizki : *Huna cein gaizqui empletatu dudan çuc ongui eguiteco eman derautaçun dembora.* (314. o.)

- generalki : *Lehena da Iaincoari esquerren emaita haren ganic **generalqui** errecibitu ditugun ontasun guztiez.* (307. o.)
- hobekiago : *Declara eçaçu **hobequiago** cer ondasun diren galdeguiten ditugun laur ontasun horiec.* (87. o.)
- humilki : *Adoratcen çaitut **humilqui** neure indar guztiaz ...* (183. o.)
- klarki : *Argui eçaçu bada othoy ene espiritua eta memoria ceruticaco arguiaz, harlaco molde non neure becatuen itsusitasuna, handitasuna eta pisutasuna eçaguturic, cofessa ditçadan **librequi**, **clarqui**, eta **bidezqui**.* (233. o.)
- komplituqui : *... eritasunac sendatcen dira, bekatuac (sic) barcatcen dira, eta Espiritu sainduaren dohaiñac **complituqui** emaiten dira.* (261. o.)
- komunzki : *..., ceiñec eguiten baitu Eliça bicia, **comunzqui** Eliça Catholica deitcen den.* (66. o.)
- laburzki : *Non daude sinhetsi behar ditugun gauçac ? Credoan **laburzqui** bilduric.* (51. o.)
- laxoki : *Accusatcen dut neure esquergabetasuna, ceren hain **laxoqui** eta ansicabequi utci dudan aita onâ eta amoriozcoa.* (226. o.)
- libreki : *Argui eçaçu bada othoy ene espiritua eta memoria ceruticaco arguiaz, harlaco molde non neure becatuen itsusitasuna, handitasuna eta pisutasuna eçaguturic, cofessa ditçadan **librequi**, **clarqui**, eta **bidezqui**.* (233. o.)
- ongi : *Eta handic gogo[r]ja emait[e]n deraut ene esquiribatceco molde haur etçayela guztiei **ongui** idurituco.* (Euscaldunei)
- osoki : *Eta guero Cofesorac ordenatcen derauzquigun satisfacinoac edo penitenciazco obrac behar ditugu **ossoqui** eta debotqui complitu.* (135. o.)
- pausatuki : *Guero has çaitte[z] **pausatuqui** zazpi oracino hauquen erraiten.* (196. o.)
- pazientki : *Bide-gabeen **pacientqui** pairatcea.* (21. o.)
- prinzipalki : *Begaira naçaçu peril guztietaric, etsai gaixtoaren enganamenduetaric, eta **principalqui** bekatu mortaletan erortcetic.* (187. o.)
- sainduki : *Erabil bedi **sainduqui** çure icena.* (88. o.)
- xeheroqui : *... pensa eçaçu (...) cer obra eguin duçun, **geheroqui** egiten duçula gogoeta cer becatu eguiten ahal duqueçun.* (313. o.)

KI (1) atzizkiak adberbioak sortzen ditu, eta biziki emankorra da, goiko zerrendan ikus daitekeen bezala. Oinarria izenondoa da gehienetan, partizipio batetik sortua batzuetan (*abantailatuki*, *agertuki*, *komplituqui*, *pausatuki*). Izena da, haatik, corpuseko bi kasutan : *bidezki*, *egiazki*.

Behin RO atzizki adberbiala aurkitzen da oinarriaren ondarrean, KI doblean agerturik : *xeheroqui*.

ZKI forma hitz eratorri hauetan agertzen da : *bidezki, egiazki, komunzki, laburzki*, baina baliteke lehenbiziko bi kasuetan -z- instrumentala izatea KI-ren aitzinean.

KI (2)

ethorki : *Ceren nola Adamec becatu eguin çuenean likistu eta nothatu baitçuen bere ethorquia eta naturaleça, eta guztioç baicara haren ethorquitic eta naturaleçatic, ...* (162. o.)

iaki : *Ha cerùetaco iaquia!* (265.o.)

KI (2) atzizkiak izenak sortzen ditu, eta aditzoin bati lotzen zaio. Bi adibide baizik ez dira agertzen corpusean.

(K)IZUN

bark(h)akizun⁽⁴⁾ : *Eta venial bertce hitz hunec cer erran nahi du ? Hambat nola barkaquiçuna, errazqui barkatcen den bekatua.* (164. o.)

ethorkizun : *Bigarreanean erraiten diogu beguira gaitçala ethorquiçuneco gaitcetatic.* (90. o.)

(K)IZUN atzizkia bitan baizik ez da baliatua corpusean, aditzoin bati eratxekirik. Kasu batean izenondo baten moduan agertzen da venial-en parean, bestean izen gisa (*ethorkizun*).

(KH)OI

emakhoi- : *Haraguizco bekatua, edo emakhoitasuna.* (26. o.)

(KH)OI atzizkia izenei lotzen zaie zaletasuna adierazten duten izenondoan moldatzeko. Materrearen adibidean, (KH)OI atzizkia hartu duen eratorriari (*eme*) beste atzizki bat erantsi zaio : TASUN.

KUNTZA

hitzkuntza : *Eta ceren añhitz baita Euscal-herrian iracurtcen daquiënic, baiña ez Euscara baicen bertce hitzcunçaric aditcen (Iracurcailleari).*

KUNTZA ere behin baizik ez du baliatzen Materrek, oinarria izena delarik (eta ez aditzoina *aldakuntza, bereizkuntza*, eta horietan gertatzen den bezala). Ez du kasu honetan prozesu bat adierazten.

LE

begirale : *Aingueru beguiraleari eguiteco othoitça* (292. o.)

begiraille : *Ezagutcen dut ecen çu çarela (...) beharretan faboratçaillea, periletan beguiraillea, arduraco ongui eguilea (...).* (293. o.)

egile : *Sinhesten dut Iainco Aita bothere guztia duena, cerùaren eta lurraren eguilea* baithan. (3. o.)

emaille : *Aithortcen dut çu çarela ene Creatçaillea, (...), ontassun guztien ithurria eta bai emaillea ere.* (183. o.)

erakusle : *Hunetan (bertce eracusleric ezteanean) ikus dadin laburzqui cere-ere sinhetsi, obratu eta eskatu behar baita (Euscaldunei)*

erraille : *Meça- erraillea a[l]darera ethor dadinean, erraçü debotqui eta attentoqui othoitz haur. (194. o.)*

eskale : *Çure (...) ontasunean fidaturic heldu naiz eria midicua gana, pro-bea aberatsa gana, escalea emaillea gana, biluça bestitçaillea gana, liçuna ura gana, eta itsua arguitçaillea gana. (248. o.)*

langile : *Cerbitçariëy eta languiley bere soldataren eta iornalaren goratcea, eta bortchaz eduquitcea. (30. o.)*

partale : *(Iaincoak) egin gaitzala lehen baiño lehen bere ceruco erresumaco ontassun handi hetan partale (80. o.)*

LE atzizkia bi oinarriekin agertzen zaigu : alde batetik ondarrean -n duten, edo -i aspektu marka hartzen duten aditzoinei loturik, izen agentiboa eratuz : *egile (EGIN), langile (LAN EGIN), erraile (ERRAN), emaile (EMAN), erakusle (ERAKUTS)* ; beste aldetik, erabide berezia dutenak nolabait : *begira(i)le, eskale, eta partale*. Azken bien kasuan, LE da atzizkia (bustidurarik gabe) eta aktibitate izenak dira oinarrian : *eske eta parte*.

MENDU

adimendu : *Eguiten derautçut othoitz ceure passione sainduaren merecimenduac gatic, nahi derautaçun neure espiritua arguitu, adimendua gobernatu, bihotça faboratu, eta orondatea (...) borthitztu (...). (245. o.)*

bark(h)amendu : *Baiña çuc emequi eta amoriozqui deithu nauçu ceure gana, eta cure ontasuna gatic barcamendu prometatu, (...). (228. o.)*

deliberamendu : *... eguiten derautçut othoitz (...) nic orai eguiten dudan deliberamendu hunetan fermuqui irauteco eta perseueratceco. (245. o.)*

desiramendu : *Çu içanen çara hemendic aiticina ene desiramendu guztien gedea eta fina. (244. o.)*

enganamendu : *Khen itçaçu gure ganic espiritu gaixtoaren enganamenduac eta celatac (343. o.)*

errepartinendu : *Bada errepartimendu haur hunela ikussiric ditçagun declara Credo, Pater noster, Aue Maria, Salve Regina, Manamenduac, Sagaramenduac, eta bertce gaiñeraco (...) gauçac. (48.o.)*

gidamendu : *Cu (sic) çara emaçurtç gaixoen aita, (...) Iustuen bozcarioa, eta errebelatuen guidamendua. (282. o.)*

komplimendu : *Ardiets diaçadaçu verthute guztien complimendua (290. o.)*

- konsentimendu : *Bekatu mortal da Iaincoaren eta gure Guiristino lagunaren contra eguiten den guztia, baldin gauça asco handia ba-da, eta borondatearen **consentimendu** ossoarequin eguiten ba-da.* (165. o.)
- konsolamendu : *Eta othoitzez nagotçu odol preciau haren baliotasuna gatic, eta ordu hartan sentitu cenduen dolore handi hura gatic, eman nahi derautaçun mundu hunetaco gaitcen hain gogo onez pairatceco indarra, non tribucinoetan becela **consolamenduetan** ere partale guertha dadin.* (202. o.)
- kontentamendu : ... *hetan eçar deçadan neure bihotça eta **contentamendu** guztia.* (206. o.)
- manamendu : *Erran nahi du eman diaçagula garazia eta fabore haren **manamendu** sainduen beguiratceco* (81. o.)
- mereximendu : *Eta halacoec içanen dute **mereximendu** handia Iaincoaren aitcinenan, baldin bere promesa behar den bidean edukitcen eta beguiratcen ba-dute.* (149. o.)
- mereximendu : *Eta finean eman diaçaguçu çure semearen Passioneço **mereximenduez** ongui probetchatceco garacia.* (222. o.)
- pagamendu : *Edirenen da segurqui handiago eta guehiago dela **pagamendua** çorra baiño.* (218. o.)
- pensamendu : *Ezagutcen dut ecen çu çarela ene bicitçearen gobernaria, (...) eta **pensamendu** onen inspiratçailea.* (293. o.)
- sagaramendu : *Edireiten dela Eliçan bekatuen eguiatzco barkamendua **Sagaramendu** sainduen verthutez* (72. o.)
- sakramendu : *Eta ceren çuc ceure Eliçan Penitenciazco **sakramendua** becatuen barcamendutan ordenatu baytuçu, ...* (232. o.)
- salbamendu : *Ceren harequin eguin baitu Iaincoaren semeac gure **salbamenduco** obra* (41 o.)
- sentimendu : *Ene bihotz haur çaurt eçacu ceure amorioaren tragaçaz halaco moldeç non dolorezco **sentimenduz** betheric ardiets deçadan çure ganic desiratcen dudan barcamendua.* (236. o.)
- tentamendu : *Eta utzten gaituenean ere digula indar eta garacia **tentamendu** hequen garaitzeço* (85. o.)
- urrikalmendu(tsu) : *A bihotz-bera, a **urricalmendutsua**, a maria virgina ezta.* (6. o.)
- urrikimendu : *Lehenbiceric behar dugu gure bekatuez bihotzeçko **urrikimendua**, ez guehiago bihurtceco borondate fermuarequin.* (134. o.)

MENDU atzizkiak maiztasun handia du Materreren lanean. Oinarrria aditzoina da beti. *-tu* aspektu marka dute edo *-i* organikoa corpuseko aditz guziek, itxuren arabera morfologiari soilik behatuz ere edozein aditzek ez baitu MENDU atzizki hau onartzen.

Sentimendu hitzaren kasuan duda izan daiteke ez ote den hitza mailegatua. Halere, horrelako maileguetan *-mentu* forma baliatzen zuen Materrek, hala nola *iuramentu* hitzean (eta horregatik azken hitz hau ez dugu eratorrien artean sartu).

Gisa horretan, *komplimendu* hitza, *konpli* aditzoinari dagokio beti *Dotrina Christianan*, 'konplitzea' adierazten duelarik.

Oin berekoak izanagatik, *urrikalmendu* eta *urrikimendu* formen arteko oposizioa garbia da, lehenbizikoa *urrikal* aditzoinari baitagokio eta bigarrena *urriki* aditzoinari. *Urrikaldu* aditza bera *urrikari* oinarritik eratorria da (*urrikaritu* dio Beriaynek 17. mendearen haste hartan, Sarasolak (1984-1995) dioenaz), eta norbait urriki ukaitea edo hartaz pietate ukaitea erran nahi du. Aldiz, *urriki* hitzak lapurteran zerbait gaizki egin ondoko dolua adierazten du⁽⁴⁵⁾, eta *urrikimendu* hitza ere sentimendu berari doakio.

OS

guthizios : *Pietateaz eguiten gara bihotz-bera, eta ongui eguitera guthizios* (153. o.)

Guthizios hitzaren ondoan, beste batzuk badira -OS atzizkia dakartenenak baina zerrendan sartu ez ditugunak zeren hitz osoa baitateke haien kasuan mailegatua : *balios, bitorios, glorios, imbidios, miserikordios, perilos, superstizios*. *Guthizia* oinarriaren euskal lexikotik ateraia da (bera ere, itxurak dioenaz, hitz mailegatua bada ere).

PEN

hats-beherapen : *Cure gana gaude hatsbeherapenez, ayez, eta nigarrez*. (6. o.)

erospen : *Orhoit çaiteci ni çurea naicela creacinoz eta erospenez*. (231. o.)

orhoitzapen : *Meça saindua nola baita sacrificioa gure Salbatçailleac berac bere heriotçe eta Pasione Sainduaren orhoitçapenetan ordenatua, ...* (188. o.)

PEN atzizkia aditzoineri bereziki lotzen zaie (*behera, eros*), batzuetan (T)ZA morfema ere agertzen delarik haren aitzinean *oroitzapen* hitzean bezala.

Hats-beherapen hitz elkartuaren kasuan, *beherapen* hitzaren oinarria *behera* aditzoina da, eta elkarketa bi izenen artean egiten da : [HATS₁] [[BEHERA₁] PEN₁].

RO

xehero-⁽⁴⁶⁾ : ... *pensa eçaçu (...) cer obra eguin duçun, geheroqui egiten duçula gogoeta cer becatu eguiten ahal duqueçun* (313. o.)

RO atzizki adberbialaren agerpen bakarra da. Ohargarria da KI atzizkia ere baliatua dela haren ondotik, RO-k bere balioa galdua zuelako marka, hain segur.

(T)ASUN

- aberatstasun ⁽¹⁷⁾ : *Cer da Auaricia ? Munduco aberatstasunen neurri gabeco guticia.* (169. o.)
- adiskidetasun : *Eta eçarten gaitu Iaincoaren garacian eta adisquidetasunean.* (135.)
- amatasun : *Cein da virgina Andre hunen laudorioric eta ohoreric handiena eta principalena ? Amatassuna virginatassunarequin batean.* (96. o.)
- arartekotasun : *Eta ceure arartecotassunaz ardiets diaçadaçu Iaincoaganic (...) egun hunetan ibiltceco gracia.* (186. o.)
- baliotasun : *Odol preciatu haren baliotasuna gatic (...) itça diaçadaçu, othoi, neure gorputça eta espiritua ceure beldurtassunaren itceaz.* (204. o.)
- batasun : ... munduan dela eguiazco Eliça bat, erran nahi da, Guiristino fidelen biltçarre bat, compainia bat, eta **battasun** bat. (65. o.)
- beldurtasun : *Espiritu sainduaren dohaiñac dira çazpi. 1. çuhurcia. 2. Adimendua. 3. Conseillua. 4. Borthitztasuna. 5. Iaquintasuna. 6. Pietatea. 7. Iaincoaren Beldurtasuna.* (284. o.)
- berotasun : *Cu çara emaçurtz gaixoen aita, hotcen berotasuna, necatuen pausatasuna, flacoen borthiztasuna.* (282. o.)
- biluzgorritasun : *Betha eçaçu ene hutstasuna, estal eçaçu ene biluzgorritasuna, jahu eçaçu ene liçuntasuna, argui eçaçu ene itsutasuna.* (248. o.)
- birginatasun : *Cein da virgina Andre hunen laudorioric eta ohoreric handiena eta principalena ? Amatassuna virginatassunarequin batean.* (96. o.)
- borthiztasun : *Cu çara emaçurtz gaixoen aita, hotcen berotasuna, necatuen pausatasuna, flacoen borthiztasuna.* (282. o.)
- dohatsutasun : *Cer aditcen duçu dohatsunaren icenaz ? Cembait obra verthutezcoac ceruco dohatsutasunaren ardiesteco bideac beçala direnac.* (155. o.)
- emakhoitasun : *Bekatu mortal buruçaguiac dira çazpi. 1. Uguillutasuna. 2. Auaricia. 3. Haraguizco bekatua edo emakhoitasuna. 4. Imbidia. 5. Gula edo sabeldarrayotasuna. 6. Hasserretassuna. 7. Naguitasuna.* (26. o.)
- emetasun : *Cure ontasuna eta emetasuna narritatu dut neure gaixtaqueria handiez.* (226. o.)
- epeltasun : *Bero çaçü ene epeltasuna* (254. o.)

- eritasun : ... eraman nauçu becatutic garaciara, heriotcetic bicitcera, ilhumbetic arguitara, gathibutasunetic libertatera, **eritasunetic** ossasunera. (240. o.)
- eskergabetasun : Accusatcen dut neure **esquergabetasuna**, ceren hain laxoqui eta ansicabequi utci dudan aita ona eta amoriozcoa. (226. o.)
- etsaitasun : Halacoac [dohatsu] dira nehorequin etsaitcen eztirenac eta bertceren arteco gaitzerizcoac eta **etsaitasunac** iraunguiric (...) guztien adisquidetcera enseyatcen direnac. (166. o.)
- eztitasun : *Bethe eçaçu othoi ene arimaren apetitua ceure eztitasunaren çaporeaz.* (263. o.)
- fermutasun : *Eta emaiten deraue etsai gaixto guztien contraco fermutasun handi bat ;* (128. o.)
- flakotasun : *Eta nola flacotasunezco bekatuac baitira Aitaren contra (...)* hala maliçiazcoac dira Espiritu sainduaren contra. (173. o.)
- gaixotasun : *Eta nola Erregue Dauitec Misibeseth Ionathas bere adisquidearen seme gaixoa (...)* bere mahayan errecibitu baitçuen, eta bere onetan eguin partale : *hala ene gaixotasunari behatu gabe eguin naçaçu ni ere Sagaramendu Sainduaren mahay hunetan partale.* (255. o.)
- garbitasun : *Ardiets diaçadaçu (...)* arimaco eta gorputceco **garbitasuna**. (290. o.)
- gathibutasun : ... eraman nauçu becatutic garaciara, heriotcetic bicitcera, ilhumbetic arguitara, **gathibutasunetic** libertatera, eritasunetic ossasunera. (240. o.)
- generalitasun : *Eguiazco Eliça hunen eçagutceco markak eta seiñaleac cein dira eta cembat ? Hirur : Batassuna, saindutassuna, eta generalitasuna.* (67. o.)
- girstinotasun : *(Aditcen dut ...)* nola guztiec baitute fede bat, legue bat, eta buruçagui bat, hala guztiec eguiten dutela Eliçabat eta **girstinotassun bat.** (70. o.)
- goratasun : *Miresteco da eguiazqui nola çu Iainco gora eta maiestatzcoa çarelaric, ceure goratasuna hain beheitituric nahi içatu duçu ene arimaren etchean sarthu.* (259. o.)
- haserretasun : *Bekatu mortal buruçaguiac dira çazpi. 1. Uguillutasuna. 2. Auaricia. 3. Haraguzco bekatua edo emakhoitasuna 4. Imbidia. 5. Gula edo sabeldarrayotasuna. 6. Hasserretassuna. 7. Naguitasuna.* (26. o.)
- handirasun : Halacoac [dohatsu] dira munduco onhassunac eta **handirasunac** Iaincoa gatic vzten dituztenac. (156. o.)
- handitasun : *Argui eçaçu bada othoy ene espiritua eta memoria ceruticaco arguiaz, harlaco moldeç non neure becatuen itsusitasuna, handitasuna eta pisutasuna eçaguturic, cofessa ditçadan librequi, clarqui, eta bidezqui.* (233. o.)

- hiltasun : *Cer da Naguitasuna ? Gogoaren hiltasun bat ceinetçaz eguiten baita presuna hain triste eta pisu, non ...* (171. o.)
- hotztasun : *Eta ene bihotçaren hotztasuna bero eçaçu çeure suaren carraz.* (283. o.)
- humiltasun : *Çazpi bekatu hauquen contra badira çazpi erremedio. 1. Vurguillutasunaren contra, humiltasuna. 2. Auariciaren contra, liberaltasuna.* (27. .)
- hutstasun : *Betha eçaçu ene hutstasuna, estal eçaçu ene biluzgorritasuna, jahu eçaçu ene liçuntasuna, argui eçaçu ene itsutasuna.* (248. o.)
- iainkotasun : *(Aditcen dut) Iaincoa baithan eztela edireiten Iaincotassun bat, içaite bat, eta naturaleça bat baicen.* (39. o.)
- iakintasun : *Iaquintasunaz ikasten dugu cer den Iaincoaren borondatea.* (153. o.)
- ilhuntasun : *Ene barreneco ilhuntasunac arguitçaçü ceure claritateaz.* (283. o.)
- indignetasun : *Eçagutcen dut neure indignetasuna.* (252. o.)
- itsusitasun : *Argui eçaçu bada othoy ene espiritua eta memoria ceruticaco arguiaz, harlaco moldeç non neure becatuen itsusitasuna, handitasuna eta pisutasuna eçaguturic, cofessa ditçadan librequi, clarqui, eta bidezqui.* (233. o.)
- itsutasun : *Betha eçaçu ene hutstasuna, estal eçaçu ene biluzgorritasuna, jahu eçaçu ene liçuntasuna, argui eçaçu ene itsutasuna.* (248. o.)
- liberaltasun : *çazpi bekatu hauquen contra badira çazpi erremedio. 1. Vurguillutasunaren contra, humiltasuna. 2. Auariciaren contra, liberaltasuna.* (27.)
- lizuntasun : *betha eçaçu ene hutstasuna, estal eçaçu ene biluzgorritasuna, jahu eçaçu ene liçuntasuna, argui eçaçu ene itsutasuna.* (248. o.)
- nagitasun : *Bekatu mortal buruçaguiac dira çazpi. 1. Uргуillutasuna. 2. Auaricia. 3. Haraguiçco bekatua edo emakhoitasuna 4. Imbidia. 5. Gula edo sabeldarrayotasuna. 6. Hasserretassuna. 7. Naguitasuna.* (26. o.)
- onhasun : *Cer deitcen duçu borondatezco probetasuna ? Munduco onhasun guztiac Iaincoa gatic utciric bere bereric ez deus eduquitcea.* (146. o.)
- ontasun : *Ontassuneç denaz beçanbatean, lehenbico galdeguiten dugun ontassuna da ohora eta lauda dadin Iaincoa* (88. o.)
- osasun : *Finean gorputceco ossasuna emaiten deraue, baldin arimacoçat behar badute* (136.)
- partaletasun : *Eta eguin naçaçu ceure gorputz preciatuaren partaletassunaz behar den gauça guztietaco gay eta digne.* (254. o.)

pausatasun : *Cu çara emaçurtz gaixoen aita, hotcen berotasuna, necatuen pausatasuna, flacoen borthiztasuna.* (282. o.)

pisutasun : *Argui eçaçu bada othoy ene espiritua eta memoria ceruticaco arguiatz, harlaco moldez non neure becatuen itsusitasuna, handitasuna eta pisutasuna eçaguturic, cofessa ditçadan librequi, clarqui, eta bidezqui.* (233. o.)

probetasun : *Cer deitcen duçu borondatezco probetasuna ? Munduco onhasun guztiac laincoa gatic utciric bere bereric ez deus eduquitcea.* (146. o.)

sabeldarraiotasun : *Bekatu mortal buruçaguiac dira çazpi. 1. Uргуillutasuna. 2. Auaricia. 3. Haraguitzco bekatua edo emakhoitasuna 4. Imbidia. 5. Gula edo sabeldarrayotasuna. 6. Hasserretassuna. 7. Naguitasuna.* (26. o.)

saindutasun : *Eguiazco Eliça hunen eçagutceco markak eta seiñaleac cein dira eta cembat ? Hirur : Batassuna, saindutassuna, eta generaltasuna.*

urguillutasun : *Cer da urguillutasuna ? Sobera abantail bere buritari desiratcea, eta bertceac mesprejaturic nehor bere berdin ez eduquitcea.* (168. o.)

TASUN atzizkia da corpusean hitz gehieni bidea irekitzen diona. Izen kategoria emaiten dio eratorriari eta oinarria izena edo izenondoa da, salbuespenik gabe (*hiltasun* eta *jakintasun* hitzen kasuan *hil* eta *jakin* izenondotzat hartzeko dira orduan).

Onhasun eta *ontasun* hitz eratorriak oposatzen ditu Materrek, zenbaitetan hitz jokoak ere eginez : *Utcı çaitut ene ontasun guztia çarena, lurreco onhasun ez-teusei itchiquitceagatic* (226. o.). *Ontasun* balore morala da gehienetan *Dotrina Christiana* liburuan, eta *onhasun*, aldiz, aberastasun materialen izendatzeko erabilia da (salbuespenik gabe, bat edo beste itzuri ez bazait). Axularrek ere, modu bereko bereizkuntza egiten zuen.

Handitasun / handirasun dobletea ere aurkitzen da : *handitasun* termino markatugabe gisa agertzen da, *handirasun* bereziki gizar-teko ospakizunei edo jendeen ospari dagokielarik. Bikoiztasun hori Leizarragaren lanetan ere aurkitzen da, bai eta Axularren obran ere.⁽¹⁸⁾

TI

egiati : *Educaçu nitçaz contu, hala nola redemitu bainauçu, lainco eguiati çarena* (323. o.)

TI atzizki adjektibalaren agerpen bakarra, *egia* izena oinarri delarik. Leizarragak ere enplegatzen zuen hitz eratorri honen erabilera ahulduz joan da azken mendeetan, gizaldi honetan kasik batere ez baita agertzen, iparraldean segurik (OEH, *egiati* sarrera).

TO

gaixto : *Deliberatcen dut neure bicitce gaixtoaren utztera.* (229. o.)

liburutto : *Hartu dut gogo **liburutto** hunen eguiteco, eta iendartera athe-
ratceco (Euskaldunei)*

TO atzizkiak balio tipiagotzailea du gutiz gehienetan eta hala da adibidez corpusean *libutto* hitzean, kontestu horretan estonagarri ez den sabaikaritze batekin (-TTO). Ordean, *gaixto* hitzaren kasuan, iduri luke atzizki berak kontrako balioa hartu duela (cf. Uhlenbeck 1909). Atzizki handi- edo tipiagotzaileek ez ohi dute oinarriaren kategoria kanbiatzen.

TSU

botheretsu : *Iainco Iauna guciz **botheretsua**, ...* (182. o.)

dohatsu- : *Cer aditcen duçu **dohatsunaren** icenaz ? Cembait obra ver-
thutezcoac ceruco **dohatsutasunaren** ardiesteco bideac beçala dire-
nac.* (155. o.)

egartsu : *Eta badaquit nehorc-ere (...) ecin iraungui deçaqueyela ene
egartsu handiaren sua.* (250. o.)

iakintsun : *Erran nahi da dela (...) Iainco eguizco, haste eta fin gabe, guz-
tiz **botheretsu**, guztiz on, guztiz **iaquitsun**, gau[ç]a guztien Creatçaille
eta Iaun.* (64. o.)

urrikalmendutsu : *A bihotz-bera, a **urricalmendutsua**, a maria virgina
eztia.* (6. o.)

TSU atzizki adjektibala lau aldiz agertzen da corpusean, hitzoina izena izanik : *bothere, egarri, urrikalmendu*. *Dohatsu* forma ere agertzen da *dohatsutasun* hitzaren barnean. Oinarria kasu horretan **doha* forma dugu, modu horretan behintzat euskaran agertzen ez dena (ikus halere, inguruko eremu semantiko batean, erro bereko bi hitz : mendebaldean *doe*, eta ekialdean *dohain*).

Eratorriaren kategoriaren aldetik, *egartsu* salbuespena da gure corpusean, argi eta garbi izena baita hitza, ez izenondoa. Axularrek ere horrela erabili zuen hitz hori, bai eta 19. mendea arte beste lapurtar klasikoek.

Jakintsun hitza berezia da : alde batetik TSUN baita atzizkia hartan ; beste aldetik, oinarria aditz partizipioa baita, izenondo gisa usaian balio aktiborik ez duena (ezezkoan errazkiago, halere : *Guziz gizon ezjakina da vs ??Guziz gizon jakina da*).

Lehen ponduari buruz, erran daiteke sudurkariaren aitzinerako hedamen baten ondorioz agertu dela TSUN forma (Michelena, 1960), hegoaldean *jakintsu* forma nagusitzen zelarik.

Bigarren ponduari buruz, derragun *jakintsu(n)* ez dela adibide bakarra mota horretakoa ; adibidez, *ukansuago* forma agertzen da Leizarragaren itzulpenetan (San Paulok korintiarrei egin 1. gutuna), *ukhan* aditza izanik oinarria, eta balio aktiboa izanik hitz eratorriak (oinarriak berak, bizkitartean, nekez izan dezakeelarik).

TZA

ezagutza : *Iduritçen çait hoben nuqueyela, eta ere eçagutça gutitaco eta esquer gabe içanen nintçela, ...* (Euskaldunei)

ezkontza : *Seigarrena [manamendua] : haraguzco obraric ezcontçaz campoan eztaguigula.* (8. o.)

TZA atzizkia bi aldiz baizik ez da agertzen. Oinarria aditzoina da eta aditz horri dagokion izen da hitz eratorria.

TZA(I)LE :

argitzaile : *Çure (...) ontasunean fidaturic heldu naiz eria midicua gana, probea aberatsa gana, escalea emaillea gana, biluça bestitçaillea gana, liçuna ura gana, eta itsua arguitçaillea gana.* (248. o.)

arintzaile : *Becatuz cargatua ba-naiz, çu çara arintçaillea eta barcatçaillea.* (277. o.)

bark(h)satzaile : *Becatuz cargatua ba-naiz, çu çara arintçaillea eta barcatçaillea.* (277. o.)

bestitzaile : *Çure (...) ontasunean fidaturic heldu naiz eria midicua gana, probea aberatsa gana, escalea emaillea gana, biluça bestitçaillea gana, liçuna ura gana, eta itsua arguitçaillea gana.* (248. o.)

edukitzaile : *Eta battassun hartan bici direla guztiac buruçagui baten gobernuaren azpian, cein baita Erromaco Aita saindua, lurrean Iaincoaren lekuaren eduitçaillea, et haren eguiazco Bicariora.* (68. o.)

examinazale : *Examinaçaleen aprobacinoa.*

laboratzaile : *Ecen çu çarela ene bicitçearen gobernaria (...) adimenduaren arguitçaillea, beharretan laboratçaillea, periletan beguiraillea, arduraco ongui eguilea, eta pensamendu onen inspiratçaillea.* (293. o.)

garbitzaile : *Çu çara bihotcen arguitçaillea, tristen consolatçaillea, iaquin-gabec (sic) iracatsaillea, erien sendatçaillea, liçunen garbitçaillea, eta dohain guzien emailea.* (282. o.)

imprimatzaile : *Jacques Millanges Erregueren Imprimaçaillearenean.* (Estalgiko 1. o.)

inspiratzaile : *Ecen çu çarela ene bicitçearen gobernaria (...) adimenduaren arguitçaillea, beharretan laboratçaillea, periletan beguiraillea, arduraco ongui eguilea, eta pensamendu onen inspiratçaillea.* (293. o.)

irakatsaile : *Çu çara bihotcen arguitçaillea, tristen consolatçaillea, iaquin-gabec (sic) iracatsaillea, erien sendatçaillea, liçunen garbitçaillea, eta dohain guzien emailea.* (282. o.)

irakurzaille ⁽¹⁹⁾ : **Iracurçailleari.**

- iratzarzaile : *Halatan iratçarçaille, orhoitçaille, eta eguiazco Sainduen representatçaille beçala ohoratcen eta adoratcen ditugu imaginac.* (105. o.)
- konsolatzaile : *Çu çara bihotcen arguitçaillea, tristen consolatçaillea, iaquin-gabec (sic) iracatsaillea, erien sendatçaillea, liçunen garbiçaillea, eta dohain guzien emaillea.* (282. o.)
- kreatzaile : *eta aitortcen dut çu çarela ene Creatçaillea, (...) ontassun guztien ithurria, eta bai emaillea ere.* (183. o.)
- lorifikatzaile : *çazpigarrena [manamendua], iaincoa dela lorificatçaillea.* (13. o.)
- maitatzaile : *Ha! guiçonon maitatçaille handia, (...) othoitçez nagotçu ...* (251. o.)
- orhoitzaile : *Halatan iratçarçaille, orhoitçaille, eta eguiazco Sainduen representatçaille beçala ohoratcen eta adoratcen ditugu imaginac.* (105. o.)
- representatzaile : *halatan iratçarçaille, orhoitçaille, eta eguiazco Sainduen representatçaille beçala ohoratcen eta adoratcen ditugu imaginac.* (105. o.)
- sakrifikatzaile : *Haur da Sacrificatçaille eternala, baquezco sacrificioa Caluarioco mendian offerendatu derautçuna.* (213. o.)
- salbatzaile : *Cergatic deitcen da Salbatçaille ? Ceren bere Passione sainduaren verthutez etsai gaixtoaren botheretic (...) salbatu eta athera baicaitu.* (97. o.)

Salbuespenak albuespen, TZAILE atzizki agentiboa LE atzizkiarekin banaketa konplementarioan da, oinarriaren formaren arabera. TZAILE, -tu aspektu marka duten edo *i* organikoa duten aditzei dagokie. Halere kasu batean bederen ez da betetzen bereizketa hau gure corpusean : *irakats(i)* aditzari dagokion *iracatsaille* forman hain zuzen. *Iratçarçaille* hitzaren kasua ere aipa daiteke, baina kontua ez da hain garbi azken honetan. Alabaina, *iratzar(tu)* aditza ere ezaguna da, *iratzarri* forma adjektibalaren ondoan. Are gehiago *Orotariko Euskal Hiztegiak* kausatiborik gabeko aditzaz dioenaren arabera (ik. *atzarri* sarrera), Lapurdiko autore zaharretan (18. mendea baino lehenagoetan) *atzartu* forma zen aditz jokaduran enplegatzen zena, *atzarri* forma adjektibal gisa agertuz bakarrik. Pentsa daiteke gauza bera zela forma kausatiboarentzat, eta molde horretan *iratzartzaile* forma guziz erregularra da.

Irakatsaille hitzaren kasua bestelakoa da. *(t)s + (t)z* elkartzearen ondorioa ts da euskaraz (Michelena 1960, 350. o.), eta *irakatsaile* forma *irakats + (t)zaile* erabidearen ondorio gisa aztertzekoa da. Gisa horretan, igurikatzen ez dugun erabidea dugu, **irakastu* forma ez baita ezaguna. Autore zaharretan *iracatsle* dio Leizarragak eta hori da nagusi izan den forma. *Irakastaile* forma ere eskaintzen du, halere, Lhandek Harrieten eskuizkribuari erreferentzia eginez ; *irakatsaile* formaren bariante gisa hartzeko bide da azken forma hau.

Ohartzekoa da atzizkia beti TZAILE dela /ll/ fonema sabaikariarekin hain segur, eta aitzineko xistukaria afrikatua izanik. Materrek morfemaren afrikazioa ez du ortografiatzen, haatik, r-en ondotik (*iracurçaille, iratçarçaille*).

ZALE forma *Dotrinan* ere agertzen da, baina liburuetakoko hatsar-reko orrialdeetan, ez baitu iduri Materrek berak idatzia zuela (*examinaçaleen approbacinoa*). Beste kasu bat ere bada (*nekhazale*), baina ez da segur atzizki agentiboa den azken hau (ik. beherago ZALE atzizkia).

Beste hitz bat bada bereziki seinalatzekoa dena corpusean, ez formatik baina erabileragatik. *Sakrifikatzaile* hitza da. Alabaina, hitz hori adibidean erabilia den bezala, *sakrifika* aditzoina erreflexiboki (eta segurenaz ere iragangaizki) interpretatu behar da, eta ez aditz iragan-kor arrunt gisa.

TZE

heriotze : ... *eraman nauçu becatutic garaciara, heriotcetic bicitcera, ilhumbetic arguitara, gathibutasunetic libertatera, eritasunetic ossasunera*. (240. o.)

TZE atzizkia izen adizki bati zegokionetan ez dugu kontuan hartu. Bestelakoetan, *heriotze* da kasu bakarra, izena izanik oinarrian.

ZALE

nekhazale : *Eztugula halaber (...) nekhazaleen edo cerbitçarien iornalic edo soldataric ere goraturic eta bortchaturic eduqui*. (115. o.)

ZALE atzizkia agertzen den adibide bakarra *nekhazale* hitza da. Nola atzizki agentiboarentzat TZAILLE erabiltzen baitu beti Materrek (testutik kanpo agertzen den *examinazale* hitza kontuan hartzen ez bada), hemen beste atzizki bat dukegu, eta ez atzizki agentiboa. Axularrek ere TZAILE erabiltzen du beti atzizki agentiboarentzat, ZALE atzizkia bi hitzetan baizik ez erabiliz : *arran(t)zale* eta *nekhazale*, eta beraz bereizkuntza garbia eginik hark ere. Horiek horrela, bi atzizkiek forma bera (ZALE) dute ekialdeko euskalkietan, eta hala zen Leizarragaren idazkietan ere.

ZARRE

biltzarre : *Sinhetsi behar dugula munduan dela eguizco Eliça bat, erran nahi da, guiristino fidelen biltçarre bat, compania bat eta battassun bat*. (65. o.)

ZARRE atzizkia aditzoineri lotzen zaie, eta hauei dagokien ekintza izen gisa adierazten du. *Biltzarre* adibide bakarra da corpusean.

ZIA

ausartzia : ... *eta emaiten deraue etsai gaixto guztien contraco fermutassun handi bat, eta are (...) Iancoa gatic biciaren (beharba-da) emaiteco esportua eta ausartcia*. (119. o.)

tristezia : *Othoitchez nagotçu (...) çuc orduan sentitu cenduen tristezia handi hura gatic* (197. o.)

zuhurzia : *Prudenciac edo **cuhurciac** eracusten deraucu nola gobernatu behar garen gure eguitecoetan.* (144. o.)

ZIA erromanotik hartu atzizkia da, corpusean hitz mailegatu batzuetan kausitzen duguna (*temperancia, malicia, prudencia, obediencia, ...*). Halere euskarak beretu baitu atzizki hau euskal oinarriekin ere agertzen da hala nola *zuhur* eta *ausart* izenondoekin gure corpusean. Kasu batzuetan neke da jakitea forma osoki mailegatua den ala, oinarrian den izenondoa ere beretu baitu euskarak, euskal eratorri gisa kontsidera daitekeen, *tristezia* hitzaren kasuan bezala.

Bilketa honen ondoan, zenbait ohar orokor laburzki egin ditza-gun.

Lehenik azpimarratzekoa da Materrek ez dakarrela euskararen morfologia kolpatzen duen hitz berririk, eta alderdi horretarik osoki fidatzekoa dela haren idazlana.

Ez dugu erran nahi horrekin ez dela hitz bat edo beste, euskal literaturan Materrearen lanetan baizik agertzen ez denik, eta beharbada berak bere buruz enplegatu zuenik. Adibidez *agertuki* edo *desiramendu* hitzak ⁽²⁰⁾ Materrearen erreferentzia xoilarekin agertzen dira *Orotariko Euskal Hiztegian*. Haatik, ez da dudarik euskal gramatika zaurtu gabe eratuak direla hitz horiek, eta irakurtzaile arruntek zailtasunik eta bortxarik gabe konprenitzeko modukoak.

Orohar, modu neurtuan baliatzen da erator atzizkiez Materre. Orotara, adizkiak kontuan hartu gabe, 181 hitz eratorri desberdin zenbatu ditugu haren lanean, 28 atzizkiri esker sortuak.

Atzizki emankorrena (T)ASUN (53 hitz), eta KI adberbiala (37 hitz), dira. Ondotik, MENDU (23 hitz) eta atzizki agentiboak ditugu : TZAILE (21 hitz) eta LE (8 hitz). Gero TSU (5 hitz), ARI-1 (3 edo 4 hitz) eta PEN (3 hitz) ditugu.

NOTES

1. Lakarrak (1994, 55. o.) adibide ezin adiererazgarriagoa eskaintzen du horretaz. Harrieten gramatikako hiztegia (1741) azterkaturik ohartarazten du euskarazko sarrera duen hiztegian hitz bat baizik ez dela KUNTZA atzizkia duenik (*hitzcunça*); aldiz frantsesezko sarrerei dagozkien euskal hitzetan 41 hitz dira, KUNTZA atzizkia dakartenak.

2. *L'horloge spirituelle des âmes dévotes et religieuses consacrées au service de Dieu*, chez Sevestre à Paris. cf. Vinson (1891 & 1898).

3. Sorginkeriazko auzien ondotik bazterren jabaltzera eta jendeen argitzera etorria ote zen Materre? Menturaz, bai. Veyrinek (1943) dioenez, urte haietan (1611an) eraiki zuten Frantziskanoek Donibane Lohizunen eta Zibururen artean komentu bat Lapurdiko nahasmenduen eta izigarrikerien ondotik bakearen ekartzeko. Edozein modutan ere ohargarria da Materrearen dotrina horretan badirela sorginkeriaz solas batzuk, orduan Lapurdin iragan berri ziren gertakariak hitz erdizka bederen gogora dakartzatenak: *Sorguinac dira iende thailu batçuc ceñec (diotenez) arnegatcen baitute bere eguiazco laincoaz, fedeaz, legueaz, errecibitu duten bathayoaz, Aitamaz, eta Eliçaco gauça guztiez eta guero hartcen dute bere iaun eta nabussi deabrua, adoratcen dute, cerbitçacen dute, eta haren borondatearen arauaz (bera laguntcen çayela) eguiten dute ahal daguiten gaizqui guztia, guztiz-ere haurretan, eta lureco fruitutean. eta halatan hec dira munduan diren ienderic gaixtoenac, laincoz eta munduz erratcea mereci dutenac.* (106-107. o.).

Ene jakinean, Lapurdiko 17. mendeko euskarazko idazlanetan testu bakarra da sorginkeriazko auziak hitz laburretan eta aski orokorki bada ere, aipatzen dituenak. Axularrek berak ere gai hori ez zuen hunki.

4. Vinsonek (1891) duda agertzen du ea Materrearen liburua Baile jesuistaren katiximaren itzulpena ez ote den. Horrelako idazlanek berezkorik guti ohi dute, baina apezpikuari eskaintzen dion hitzean garbiki dio Materrek Euskal Herrian euskaldunentzat pentasua eta egina izan dela liburua: *Voicy ce livret escrit en Basque & dressé pour le profit des Basques (...)* Il vous est iustement deu, puis qu'il a esté conçu dans le territoire de votre dioceze.

5. Duen interesagatik, eta Materrearen liburua eskuragaitz izanik, hona hemen azalpen horietako parte bat: *Miretsico duçue aguian (Euscal-herrico ez naicelario) Euscaraz esquiribatceco ausartçiareren hartcea. Baiña baldin considera ba-dadi edirenen duçue ezteela gauça hunetan ausartçiaric, eta ez cer miretsiric: aiticic bertcela eguin ba-nu miretsi behar çatequeyela eta erran ahanci ciççaitala neure eguinbidea. Ceren laincoac niri hitzcunça hunen ikasteco ence appur bat eman derautanaz gueroz, iduritzen çait hoben nuqueyela, eta ere eçaguiça gutitaco eta esquer gabe çanen nintcela, baldin Euscal-herrian ikassia Euscal-herrico probetchutan emplegatu ez-panu.*

Euangelioco cerbitçari alfer hura gaztigatu çuen bere nabusiac, ceren irabacian erabiltceco errecibitu çuen talentua eta dirua estalia eta ehorcia eduqui çuen. Handic çan naiz ni ere beldur hala guertha cequidan, baldin Euscaraz minçatceco ardietsi dudan talentua eta iaquina arima irabacian emplegatu gabe ehortcia eta gordean eduquitcen ba-nuen.

6. Idazlan honetan *Dotrina Christiana*-tik atera aipuetan agertzen diren azpimarrak eneak dira beti [B.O.].

7. Oxford-eko bibliotekan dagoen 1623ko argitalpenaren ale baten fotokopia erabili dugu guhaurk lan honen egiteko. Kopian berean errana denaren arabera zenbait orrialde falta baitziren liburuan (258-261 bitartekoak), 1704eko argitalpeneko ale batetik hartua izan da eskas zen testua.

8. Zuberoan Belapeyrek erabili bide zuen Materrearen lana. Adibidez, ohar gaitzke sorginkeriaz Materrek erranak (ik. gorago 3. oharra) berriz aurkituko direla laueta hogen urteren buruan Belapeyren katiximan (1696), euskalki egokitzapenez landa kasik deus aldakuntzarik gabe:

- *Beelgaliac* (sic) *cer gente dira eta nola houç eguiten die lehen manieren contre?*

- *Gente eta espiritu apal elibat, çogñec dioyenaz arnegatcen baitie bere eguiazco Gincea, eta batheyu santian hartu dien fedia eta Jesus-Christen leguia ; Aita ama, eta Eliçaco gaiça guciac : Eta guero hartcen die bere Jaun eta burçagui Deebria, adoratcen die, cerbutchatcen, eta harc nahi beçala, bera laguntcen çayela, eguiten dutie gaizki ahalac oro, guciz haurretan, aberetan, eta lurreco frutietan ; halatan munduco gente gaistoenaç dira Ginceaz eta legue oroz erre merechi dienac.*

Zer erran nahi ote du horrek ? Bi idazleek pasarte hori beste nonbaitetik hartu ote zuten eta euskarara itzuli ? Nekez, ene ustez, hain elkarren iduriko itzulpenak egin zitezkeen batak bestearen lana ikusi gabe, eta segurenaz ere Belapeyre Materreri jarraiki zitzaion lehen manamenduaz aritzeko. P. Agirrek (bidean) egiaztatu duenaren arabera (k. p.) beste pasarte batzuetan ere jokabide horren hatza kausi daiteke Belapeyrenen katiximan.

9. Axularrek ere ideia bertsua garatu zuen euskaldunei eskaini aitzin hitzetan : *Baiña zeren komunzki, hala eskiribatzea, nola minzatzea, nori berea iduritzen baitzaika hoberenik eta ederrenik : eta ene haur ezpaita zurea bezala, ez, othoi, hargatik arbuia eta ez gaitz erran. Hunetzaz kontent ezpazara, egizu zuk zeure moldera, eta zure herrian usatzen eta segitzen den bezala. Zeren ez naiz ni hargatik bekhaitzuko, eta ez muturturik gaitzez iarriko.*

10. Egia erran, adiztasunaren seinalatze ere erabiltzen da maiz -tu marka (aditzen izendatzeko adibidez, hegoaldeko tradizioan), eta badirudi gramatikariak horrela baliatu izan dutela gehienik deribazioaren aurkezterakoan. Nolanahi ere aditz bat eratorketaren bidez sortzen denean, eta eratorke bat berri baten oinarri izaiten denean, ez ohi da hartan erator atzizki berezirik agertzen (edo -Ø da). Adibidez *berogailu* aditzaren deskribaketa morfologikoa honela litzateke : [[[bero_{1,0}] Ø₁] gailu₁].

11. Trask-ek (1985) IZENA + IZENONDOA + KO formak eratorriak direla dio, zeren oinarria izen multzo soila den eta erregularitasunik gabeko erabidea ere den. Halere, morfofologia kontuan hartuz gero : -e- loturazkoa KO izenondoari lotzean (*beso labur-eko*), eta zenbait euskalkitako -TAKO formak (*fede xipitako, indar xipitako*, etab... Leizarragaren eta Lapurdiko eta ekialdeko beste askoren lanetan, eztabaigarri iduritzen zait azterketa hau, ezen kasu markadurako morfofologia lexikoan sartzera behartzen baikaitu.

Bestalde, KO-rekin segituz, baina aitzineko kontutik desberdina den buruhauste batera iraganez, ez da dudarik izen anitz ditugula euskaraz KO atzizkia dakartenak. Mota horretako izenak oinarri askotakoak izanarren beti ere izenlagun bat dute oinarrian eta izenlagunari dagokion izen ardatzaren isiltzetik (ez KO atzizkitik beretik) sortu da izen erabilera, gero gisa horretan lexikalizatu dena : *aireko, ararteko, bateko, belarrondoko, etxeko, lekuko, oinetako, ...*

12. *Alegera* (izenondoa) / *alegriantza* (izena) bikotea Axularren idazkian ere agertzen da.

13. *Besarka* izenaz eman diren beste azterkabideentzat ikus Agud & Tovar (1989 - , *besarka* sarrera). Michelenak (1968) seinalatzen duen bezala *eskuarki* ere modu berean azter daiteke : ESKU+(H)AR+KI (cf. fr. *maintenant*).

14. Materreren grafia aldakorra da [kh] soinuaren idazterakoan : batzuetan KH idazten du, besteetan K. Ordean, C(A) / QU(I) grafiaz baliatzen da beti herskaria aspiratua ez denean. *Barkha* aditzoinaren grafia, berriz, ez du beti berdin ortografiatzen : *barca / barka / barkha*, eta horregatik aspirazioaren zeinua parentesien artean utzi dugu transkripzioan.

15. *Vrriqui* hitza *dolu* itzuli zuen Leizarragak Zuberotarrentzat egin bere hiztegi laburrean.

16. Materrek G(E) eta J(A) letraz baliatzen da xixtukari sabaikariaren (gaurko X) idazteko : *gehero, jahu, ijilik*, etab... Axularrek grafia horren berri eman zuen bere liburu aitzin solasean buruhauste ortografikoak aipatzean.

17. *Aberats* hitzoinean TS atzizki eratorlea ez ote den galdatua izan da literaturan (ik. bereziki Uhlenbeck 1909). Ez dugu halere atzizki hau kontuan hartu, gauzak ez baitira biziki garbi eta, nolana ere, atzizki hipotetiko horren hedadura franko mugatua delakotz.

18. Bekatuez mintzatzerakoan, *handitasuna* zioen Leizarragak (Materrek bezala), ez *handirasuna*. Ordean handiki baten ahalmenaz-edo aritzeko bai *handirasun*, bai *handitasun* erabiltzen zituen. Horrela, bere katiximan Erregeri egiten dion hitzean *handirasun* enplegatzen du *puissança* hitzaren ondoan : *Hambatequin, hari berari othoitz eguiten draucagu launa, cure adinarequin çure handirassuna eta puissança emendatuz, çure etsay ororen gainean victoria emanez, eguimbide eta iustitia orotan bethi çure Maiestatearen thronoa confirmatuz, bere Spirituaz ardura governa eta guida çaitzala.*

Urrunago, berriz, galde-erantzunetan *handitasun* erabiltzen du *bothere* hitzarekin batean : *orduan laincoa exaltaturen da, eta creatura gucia haren botherearen eta handitassunaren menera humiliaturen : eta bera içanen da gucia gauça gucietan.*

19. Letra larrietan idatzia da hitz hori, eta C letra agertzen da liburuan, batere dudarik gabe inprimategian ç grafia ez baitzitekeen letra larritan eman. Gauza bera gertatzen da *EXAMINACALE* hitzean, letra larrietan horrela idatzia eta *examinaçale* irakurtu duguna.

20. *Orotariko Euskal Hiztegiaren* arabera *desirmendu* hitza eskaintzen du *Pouvreauk* bere hiztegian. Azken hau hutsa ez bada, ez da dudarik *desiramendu* hitza hurbilagotik jarraitzen zaiola euskararen morfologiari bestea baino, *MENDU* atzizkia aditzoineri lotzen ohi baitzaie : *desira* hala da ; ez, ordean, *desir*.

21. Frantsesezko itzulpenarekin batean, hitzaren ondotik erator atzizkia parentesien artean emaiten dugu, irakurtzaileak artikuluan non bila jakin ahal dezan. Kontuan har bedi, artikulua hastapenean adierazia den bezala, adizkiei dagozkien formak (bestela lexikalizatu direnean ere) ez direla zerrendan bildu. Bistan dena, itzulpena Materren erabilerari dagokio.

Eranskina

Adizkiez kanpoko hitz eratorriak Materreren
Dotrina Christianan.⁽²¹⁾

abantailatuki (KI -1) *avantageusement*
 aberatstasun (TASUN) *richesse*
 adimendu (MENDU) *entendement*
 adiskidetasun ((T)ASUN) *amitié*
 agertuki (KI -1) *à découvert*
 ahalkegabeki (KI -1) *effrontément, impudemment*
 alegriantza (ANTZA) *joie, allégresse*
 amatasun ((T)ASUN) *maternité*
 ansigabeki (KI -1) *insouciamment*
 arartekotasun ((T)ASUN) *médiation*
 argitzaile (TZAILE) *qui éclaire*
 arintzaile (TZAILE) *qui allège*
 atentoki (KI -1) *attentivement*
 ausartzia (ZIA) *audace*
 baliotasun ((T)ASUN) *valeur*
 banoki (KI -1) *vainement*
 bark(h)akizun ((K)IZUN) *vénuel, aisément pardonnable*
 bark(h)amendu (MENDU) *pardon*
 bark(h)atzaille (TZAILE) *qui pardonne*
 batasun ((T)ASUN) *union*
 begira(i)le (LE) *protecteur, gardien*
 beldurtasun ((T)ASUN) *crainte*
 beregainki (KI -1) *spécialement*
 bereziki (KI -1) *spécialement*
 berotasun ((T)ASUN) *chaleur*
 besarka (KA) *embrassade*
 bestitzaille (TZAILE) *qui habille*
 bidezki (KI -1) *dûment, comme il se doit*
 biltzarre (ZARRE) *assemblée*
 biluzgorritasun ((T)ASUN) *nudité*
 birginatasun ((T)ASUN) *virginité*
 borthitztasun ((T)ASUN) *force*
 borthizki (KI -1) *fortement, violemment*
 botheretsu (TSU) *puissant*
 debotki (KI -1) *dévotement*
 deliberamendu (MENDU) *décision*
 desiramendu (MENDU) *désir*
 desoneski (KI -1) *malhonnêtement*
 digneki (KI -1) *dignement*
 dohatsutasun (TSU+(T)ASUN) *béatitude*
 edari (ARI 2) *boisson*
 edukitzaille (TZAILE) *qui tient, détient*
 egartsu (TSU) *soif*
 egiati (TI) *sincère*

egiazki (KI -1) *vraiment*
 egile (LE) *qui fait*
 emaille (LE) *qui donne, donateur*
 emakhoitasun (KHOI+ (T)ASUN) *luxure*
 emetasun ((T)ASUN) *suavité, douceur*
 enganamendu (MENDU) *tromperie*
 epeltasun ((T)ASUN) *tiédeur*
 erakusle (LE) *qui montre, maître*
 eritasun ((T)ASUN) *maladie*
 erospen (PEN) *achat, rédemption*
 erraille (LE) *qui dit (meza erraile, officiant)*
 errazki (KI -1) *facilement*
 errealki (KI -1) *réellement*
 errepartimendu (MENDU) *répartition*
 eskale (LE) *mendiant*
 eskergabetasun ((T)ASUN) *ingratitude*
 espiritualki (KI -1) *spirituellement*
 ethorki (KI -2) *nature (originelle)*
 ethorkizun ((K)IZUN) *avenir*
 etsaitasun ((T)ASUN) *inimitié, hostilité*
 euskaldun (DUN) *basque*
 examinazale (TZAILE) *examineur*
 ezagutza (TZA) *reconnaissance*
 ezkontza (TZA) *mariage*
 eztitasun ((T)ASUN) *douceur*
 faboratzaille (TZAILE) *qui favorise, aide*
 faltsoiki (KI -1) *faususement*
 falseria ((K)ERIA) *fraude, tromperie*
 fermuki (KI -1) *fermement*
 fermutasun ((T)ASUN) *fermeté*
 finki (KI -1) *fortement*
 flakotasun ((T)ASUN) *faiblesse*
 gaixotasun ((T)ASUN) *état misérable*
 gaixtakeria (TO+(K)ERIA) *méchanceté*
 gaixto (TO) *mauvais*
 gaizki (KI -1) *mal*
 garbitasun ((T)ASUN) *propreté, pureté*
 garbitzaille (TZAILE) *qui purifie, nettoie*
 gathibutasun ((T)ASUN) *captivité*
 generalki (KI -1) *généralement*
 generaltasun ((T)ASUN) *universalité*
 gidamendu (MENDU) *guidage, direction*
 gidari (ARI -1) *guide*
 giristinotasun ((T)ASUN) *chrétienté*
 gobernari (ARI -1) *gouverneur*
 gogoeta ((K)ETA) *pensée*
 goratasun ((T)ASUN) *hauteur*
 guthizios (OS) *désireux*
 handirasun ((T)ASUN) *grandeur*

handitasun ((T)ASUN) *grandeur*
 haserretasun ((T)ASUN) *colère*
 hats-beherapen (PEN) *soupir*
 heriotze (TZE) *mort*
 herstura (DURA) *détresse*
 hilgarri (GARRI) *mortel (actif)*
 hiltasun ((T)ASUN) *torpeur, apathie*
 hitzkuntza (KUNTZA) *langue*
 hobekiago (KI -1) *mieux (adverbial)*
 hotztasun ((T)ASUN) *froideur*
 humilki (KI -1) *humblement*
 humiltasun ((T)ASUN) *humilité*
 hutstasun ((T)ASUN) *vacuité*
 iainkotasun ((T)ASUN) *divinité*
 iaki (KI -2) *nourriture*
 iakintasun ((T)ASUN) *savoir, science*
 iakintsun ((T)ASUN) *savant*
 ilhuntasun ((T)ASUN) *obscurité*
 imprimatzaille (TZAILE) *imprimeur*
 indignetasun ((T)ASUN) *indignité*
 inspiratzaille (TZAILE) *inspirateur*
 irakatsaille (TZAILE) *enseignant*
 irakurzaille (TZAILE) *lecteur*
 iratzarzaille (TZAILE) *qui réveille*
 itsusitasun ((T)ASUN) *laideur*
 itsutasun ((T)ASUN) *aveuglement*
 izialdura (DURA) *frayeur*
 klarki (KI -1) *clairement*
 komplimendu (MENDU) *complétude, accomplissement*
 komplituki (KI -1) *intégralement, de façon complète ou accomplie*
 komunzki (KI -1) *communément*
 konsentimendu (MENDU) *consentement*
 konsolamendu (MENDU) *consolation*
 konsolatzaile (TZAILE) *consolateur*
 kontentamendu (MENDU) *contentement*
 kreatzaille (TZAILE) *créateur*
 laburzki (KI -1) *brièvement*
 langile (LE) *ouvrier*
 laxoki (KI -1) *négligemment*
 liberaltasun ((T)ASUN) *générosité*
 libreki (KI -1) *librement*
 liburutto (TO) *petit livre*
 lizuntasun ((T)ASUN) *souillure, saleté*
 lorifikatzaille (TZAILE) *qui (se) glorifie*
 maitatzaille (TZAILE) *qui aime*
 manamendu (MENDU) *commandement*
 merezimendu / mereximendu (MENDU) *mérite*
 miretsgarri (GARRI) *admirable*
 nagitasun ((T)ASUN) *paresse*

nardagarri (GARRI) *dégoûtant, répugnant*
 nekhazale (ZALE) *ouvrier*
 nothadura (DURA) *tache*
 oliadura (DURA) *(extrême-) onction*
 ongi (KI -1) *bien (adverbial)*
 onhasun ((T)ASUN) *bien (matériel, substantif)*
 ontasun ((T)ASUN) *qualité, vertu, bonté*
 orhoitzaille (TZAILE) *qui rappelle (au souvenir)*
 orhoitzapen (ZAPEN) *souvenir*
 osasun ((T)ASUN) *santé*
 osoki (KI -1) *totalelement*
 pagamendu (MENDU) *paiement*
 partale (LE) *participant*
 partaletasun (LE + (T)ASUN) *participation*
 pausatasun ((T)ASUN) *repos*
 pausatuki (KI -1) *posément*
 pazientki (KI -1) *patiemment*
 pensamendu (MENDU) *pensée*
 pisutasun ((T)ASUN) *poids*
 prinzipalki (KI -1) *principalement*
 probetasun ((T)ASUN) *pauvreté*
 representatzaille (TZAILE) *qui représente, représentation*
 sabeldarriotasun ((T)ASUN) *gloutonnerie*
 sagaramendu / sakramendu (MENDU) *sacrement*
 sainduki (KI -1) *saintement*
 saindutasun ((T)ASUN) *sainteté*
 sakrifikatzaile (TZAILE) *sacrificateur*
 salbamendu (MENDU) *salut*
 salbatzaile (TZAILE) *sauveur*
 sentimendu (MENDU) *sentiment*
 tentamendu (MENDU) *tentation*
 tristezia (ZIA) *tristesse*
 urguilutasun ((T)ASUN) *orgueil*
 urrikalmendutsu (ARI-1+MENDU+TSU) *miséricordieux*
 urrikari (ARI 1) *qui soulève la pitié, pitoyable (urrikari izan, avoir en pitié)*
 urrikimendu (MENDU) *regret, repentir*
 xeheroki (RO+KI -1) *minutieusement*
 zerbitzari (ARI -1) *serviteur*
 zuhurzia (ZIA) *sagesse*

Bibliographia

Agirre, P. (bidean). Belapeyreren 'Catechima laburra' ren edizio kritikoa. EHUKo doktore tesia.

Agud, M. & Tovar, A. (1989-). *Diccionario etimológico vaco*, atalka ateratzen ari dena, in ASJU, Donostia.

Axular, P. de -. (1643). *Gero*. Villasanteren edizioa, Jakin, 1976, Oñati.

Azkarate, M. (1992). *Oihenarten lexiko sorkuntza*, in *Oihenarten laugarren mendeurrena*, Iker-8, Euskaltzaindia, Bilbo.

Azkue, R. M. de -. (1923-25). *Morfología vasca*, in *Euskera*; 1969.eko argitalpena, 3 liburukitan. Editorial la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

Belapeyre, A. (1696). *Catechima laburra*. J. L. Davantek paratu edizio kritikoa. 1983. Euskaltzaindia. Bilbo.

Bozas-Urrutia, R. (1968). *Un 'Materre' de 1704*, in *BRSVAP*, 24-2, 191-205.

Lafitte, P. (1944). *Grammaire basque*. 1962ko argitalpen berrikusi eta zuzendua. Ikas. Baiona.

Floristan Imizcoz, A. (1993). *Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI : 20 inéditos*, in *FLV*, 63, 117-219.

Lakarra, J. (1994). *Harrieten gramatikako hiztegiak*, in *ASJU*, 18-1, 1-178, Donostia.

Materre, E. (1617.) *Dotrina Christiana*. 1623ko argitalpena (2.a). Jacques Millanges inprimatzailearen baitan, Bordele.

Michelena, L. (1960). *Fonética Histórica Vasca*, 1976ko argitalpen zuzendu eta aberastua. ASJUren argitalpenak. Donostia.

Michelena, L. (1968). *Aitonen, aitoren seme, 'noble hidalgo'*, in *BAP*, 24-3-18, berriz argitaratua in *Sobre historia de la lengua vasca*, II, 516-527, Anejos del ASJU, 10 (1988).

Mitxelena, K. (1986). *Eratorbidea eta deklinabidea*, in *Euskera*, 21-2, 535-541. berriz argitaratua in *Sobre historia de la lengua vasca*, II, 674-679, Anejos del ASJU, 10 (1988).

OHE (Luis Michelena). *Orotariko Euskal Hiztegia*, atalka ateratzen ari dena, Euskaltzaindia, Bilbo.

Orpustan, J.-B. (1993). *Oihenarten hiztegia*. Éditions Izpegi, Baigorri.

Perez-Gaztelu, E. (1995). *Egitasmoa eta egitatea*. 2 liburuki. Errenteriako udala. Errenteria.

Rijk, R. de -. (1991). *Deux suffixes capricieux : -PEN et -MEN*, in *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Pars Altera, ASJU-ren gehigarriak. Donostia.

Sarasola, I. (1984-1995). *Hauta lanerako euskal hiztegia*, 9 liburuki, Kutxa fondazioa, Donostia.

Trask, R. (1985). *Ko atzizkia euskaraz*, in *Euskera*, 30-1, 165-174, Bilbo.

Ühlenbeck C.C. (1909). *Suffixes du basque servant à la dérivation des mots*, in *RIEV*, 3,1-16, 192-225, 401-430).

Veyrin, P. (1943). *Les Basques*. 1975ko argitalpena. Arthaud, Paris.

Vinson, J. (1891) *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. 1984ko ASJUren argitalpena, Donostia.

Villasante, L. (1974). *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Editorial franciscana Aranzazu, Oñati.

Zabala, I. & Odriozola, J. C. (1994). 'Adjektiboen' eta 'adberbioen' arteko muga zehatzik eza, in *ASJU*, 28-2, 525-541, Donostia.

Résumé

“La dérivation lexicale dans la *Dotrina christiana* [Doctrine chrétienne] de Materre (1617)”, tel est le titre et l’objet de cette étude.

De manière préalable, l’article présente l’ouvrage de S. Materre qui est peu connu, car fort rare, du fait notamment de l’absence de réédition depuis bientôt trois siècles. Il s’agit pourtant, d’une part, du premier livre basque écrit en prose qui ne soit pas une traduction (même s’il faut tenir compte de la nature particulière de l’ouvrage : un livre d’instruction religieuse associé à un recueil de prières), d’autre part, de la première œuvre écrite en labourdin classique du XVII^e siècle.

La chose est d’autant plus remarquable que l’auteur, un franciscain venu en Labourd après 1606, avait appris le basque à l’âge adulte et apparemment en l’espace de quelques années (il n’était plus en territoire basque en 1617) : c’est donc aussi le premier ouvrage écrit par un non-natif, et, pour dire vrai, s’il n’en avait pas fait la confidence dans un avertissement adressé aux Basques, c’est un fait que la seule lecture de l’ouvrage n’aurait probablement pas permis de déceler. La langue, en effet, est claire, naturelle, à la fois simple et de très bonne tenue, en tous points préfiguratrice de cette école labourdine dont l’œuvre d’Axular marque le sommet. Au demeurant, Materre, qui indique avoir appris le basque à Sare avait dû connaître Axular, curé de cette paroisse à cette époque, et l’on n’est donc pas surpris de voir figurer ce dernier parmi les examinateurs chargés de délivrer l’approbation épiscopale.

Concernant le sujet proprement dit de la recherche, le manque d’études relatives à la dérivation basque fondées sur les textes eux-mêmes ayant été souligné, la dérivation lexicale est présentée dans la perspective de la création lexicale, et les buts de la recherche définis : rassembler de manière exhaustive, et classer, les dérivés lexicaux non verbaux formés par suffixation, de manière à cerner les contraintes de nature catégorielle régissant leur formation.

Après avoir défini la dérivation par rapport à la composition d’un côté et par rapport à la flexion de l’autre, les vocables dérivés se trouvant dans l’ouvrage de Materre sont recensés et regroupés par suffixes : 28 suffixes non verbaux sont étudiés, dont 10 ayant donné lieu à la formation d’au moins 3 vocables dans le corpus.

Au total 181 vocables sont dénombrés, chacun étant associé à un exemple illustrant son emploi. Les contraintes relatives à la catégorie grammaticale de la base à laquelle se joint chacun des suffixes, ainsi que leur propre nature catégorielle, sont définies, et certains cas particuliers discutés.

La liste des vocables est fournie en annexe, présentée dans l’ordre alphabétique, avec une traduction et l’indication du morphème de dérivation entre parenthèses.

Bernard OYHARÇABAL
 Directeur de Recherches
 ERS 142 du CNRS